

# Nire lehen portfolioa

Mi Primer Portfolio

My First Portfolio

3-7 urte



kotore hauek  
nire munduan  
dauden hizkuntzak  
dira



tzona dut.....

Hau da nire ikasketaren historia. Orri hauean idatziko ditut nire aurrerapausoak: ikasten ditutako hizkuntzak, egiten ditutako jarduerak eta nola lortzen duten egunetik egunera gehie jakitea.

Nire lehen hizkuntza da ☺ . Ikastetxean ikasten dut ☺ .

Nire familiako batzuekin eta ikaskide batzuekin hitz egiten dut ☺ ,  
beste batzuekin ☺ .

## Gida didaktikoa



HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA

# Nire lehen Portfolioa

**Mi primer portfolio**

**My first portfolio**

**3-7 urte**

Diseinua eta testua:

M<sup>a</sup> del Carmen Alario Trigueros  
(Kordinatzailea)

M<sup>a</sup> de la Calle Alonso Ramírez

M<sup>a</sup> Belén Gómez Romero

Miguel Ángel Robledo Ortega

Itzulpena:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Saila

Euskara Zerbitzua



Europako Kontseilua gobernuarteko erakundea da eta Estrasburgon du egoitza, Frantzia. Lehen helburu du kontinentearen batasuna indartzea, Europako herritarren duintasuna bermatzea eta gure balio nagusiak zaintzea: demokrazia, giza eskubideak eta zuzenbide estatua.

Bere xede nagusietarikoa da Europako kultura identitatea sustatzea eta kultura ezberdineko herrien arteko elkar ulertzea garatzea. Testuinguru honetan Europako Kontseilua Hizkuntzen Portfolio Europarra zabaltzeko lana koordinatzen ari da, hizkuntzen ikaskuntza eta kultura arteko esperientziak maila guztietan bultzatu eta aitortzeko

**Kontaktua:**

Hizkuntza Politikarako Departamendua  
Z.N. IV.

Europako Kontseilua, Estrasburgo, Frantzia

<http://culture.coe.int/portfolio>

Gida didaktiko hau Europako Hizkuntzen *Nire lehen Portfolioaren* zati da, Espainiako hezkuntza, Kultura eta kirol Ministerioak bultzatua.

© 2000 Europako Kontseilua, Estrasburgo, Frantzia.

El Consejo de Europa es una organización intergubernamental con sede permanente en Estrasburgo, Francia. Su primera misión es promover la unidad del continente y garantizar la dignidad de los ciudadanos europeos asegurando el respeto por nuestros valores fundamentales: la democracia, los derechos humanos y el estado de derecho.

Uno de sus objetivos principales es fomentar la toma de conciencia de una identidad cultural europea y desarrollar el entendimiento mutuo entre los pueblos de culturas diferentes. Dentro de este contexto el Consejo de Europa está coordinando la introducción de un Portfolio Europeo de las Lenguas para apoyar y dar reconocimiento al aprendizaje de lenguas y a las experiencias interculturales de todo tipo.

**Contacto:**

Departamento de Política Lingüística  
DG IV

Consejo de Europa, Estrasburgo, Francia

<http://culture.coe.int/portfolio>

Esta guía didáctica es parte de Mi Primer Portfolio Portfolio Europeo de Lenguas, expedido por el MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE. ESPAÑA

©2004 Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. España.



Hizkuntzen Portfolio Europarrari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu honako Web orrira:

<http://aplicaciones.mec.es/programas-europeos>

Para más información sobre el proyecto Portfolio Europeo de las Lenguas del MECD, visite la siguiente dirección web:

<http://aplicaciones.mec.es/programas-europeos>

## Aurkezpena

Gida honek Hizkuntzen Portfolio Europarrak eskaintzen dituen aukerak erakutsi nahi dizkie lehen mailetako (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako) irakasleei, Portfolioa ezagutu eta erabili ahal izan dezaten. Europako Kontseiluak sortu eta bultzatutako egitasmoa da hau. Espainian Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioaren ardurapean den Europako Programetarako Zuzendaritzaordetza Nagusiak koordinatu du lana eta Autonomia Erkidegoen lankidetzan izan du egiteko horretan. HPE guztiek hizkuntza-aniztasuna sustatzea dute helburu, eta, horren bitartez, Europako herri guztien arteko komunikazioa erraztea. Hau da, HPE-ek hizkuntzak ikasten lagundu nahi dute, betiere, norik bere esperientziatik abiatu eta mundua ulertzeko eta ideiak adierazteko era asko daudela onartu eta aintzat hartuta.

*Hizkuntzen Nire Lehen Portfolioa 3-7* dokumentuak, zenbait jardueraren eta galderaren bidez, ikastetxeak, familiak, lagunek edota komunikabideetan ezagututako pertsonaiek jokatzen duten rolari buruz pentsarazten die umeei. Aldi berean, dokumentu honek ikusarazi nahi die etxean, ikastetxean, aisialdian eta bidaietan, edo inguruan dituzten objektuekin harremanetan egunero izaten dituzten bizipenekin asko ikas daitekeela. Laburbilduz, Portfolioaren helburua da ikasgela barruko eta kanpoko esperientziak erabiliz umeei bizi duten errealitatea kultura eta hizkuntza askotakoa dela erakustea; izan ere, hori da eskolaldiaren une horretan hasi eta bizitza osoan eginkizun izango duten hizkuntzen ikaskuntza autonomoa erraztu eta oinarritzko estrategiak finkatzeko bidea.

Lehen HPE honek mahai-joko baten egitura du eta eskola bakoitzaren egoerara molda liteke. Gida didaktiko hau, beraz, ez da jarduerak eta denborak finkatzen dituen programazio zurruna, baizik eta eskola bakoitzak bere ezaugarrien neurritan moldatu behar duen atazaren edo iradokizunen bilduma. Zentro bakoitzak egokitu behar du Portfolioa ikasleen egitekoak aintzat hartuta, irakasleen elkarlanean oinarrituta eta gurasoen eta zentroa txertatuta dagoen komunitatearen ekarpenak aztertuta. Gida hiru atal hauek osatzen dute: HPEri buruzko sarrera laburra, gela barruan egiteko aktibitatez osatutako sei jarduera, eta jarduera bakoitzaren amaieran lortutako helburuei buruzko gogoeta egin eta ebaluatzeako iradokizunak. Horretaz gain, 2 eranskin ditu. *I. Eranskinean* A1 eta A2 lehenengo bi Erreferentzia Maila Bateratuen adierazleak deskribatzen dira, adin horretara moldatuta. Deskribapen horien asmoa hezkuntza-maila horietan egokiak diren testu, jarduera eta komunikazio-helburuei buruzko gogoeta sustatzea da. *II. Eranskinean* ikasleen gurasoekin nola jokatu adierazten da, haiek jabetu daitezzen zer-nolako ardura duten beren seme-alaben ikasketa berrietan eta HPE erabiltzeak zenbat balio duen beren seme-alaben ahalmena umetatik indartzeko.

Dokumentuan dauden orientabideek eta aholku-iradokizunek Europako Kontseiluak HPE Europa osoan erabiltzeko ezarri dituen arauak betetzen dituzte. Zehatzago esanda, Espainian hezkuntza-maila guztietarako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Helduen Hezkuntza) egin diren HPE-ek dituzten zehaztapen eta moldaketa guztiak aintzat hartzen dituzte. Gida honek 2002-2003 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako 7 eskolatan egin zen esperientziaren emaitzetan oinarritutako proposamena jaso du. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzan eta atzerriko hizkuntzetan adituak diren 22 irakasle, 400 ikasle inguru eta senitarteko ugari partaide izan dituen esperientzia pilotuaren emaitzak ditu jatorrian. Eskolak maila horietako aniztasunaren lagin gisara aukeratu ziren: komunitate elebakarrak, bi eleko komunitateak, erkidegoko hizkuntza batean murgiltze-programak dituzten komunitateak, eredu bat baino gehiagoko zentroak, txikiak, handiak, etorkinak dituztenak eta ez dituztenak, eskualdeko zentroak, eredu bat baino gehiago duten nekazaritza-eremuko zentroak, nekazaritza-eremuko zentro bateratuak eta maila bat baino gehiago dituzten eskola unitarioak.

Gida Didaktikoa eta Hizkuntzen Nire Lehen Portfolio Europarra osatzen duten materialak zenbait irakasle-talderen elkarlanaren fruitua dira. Lan horiek Valladolideko Unibertsitateko *Hizkuntzen Sarrera Goiztiarra* ikerketa-taldeak egindako lanean oinarrituta egin dira. Lan-talde hori *Carmen Alario Trigueros* koordinatzaileak, *M<sup>a</sup> de la Calle Alonso Ramírezek*, *M<sup>a</sup> Belén Gómez Romerok*, *Miguel Angel Robledo Ortegak*, *Ana Belén Gutiérrez Barónek* eta *Laura Palacios Zorrillak* osatzen dute eta HPE berria hezurmamitzeko lan-talde horrek Europako Kontseiluak ezarritako irizpide berriak kontuan izan ditu. Carmen Alario koordinatzaileak hainbat lan egin zituen: testuen, jardueren eta arloen proposamena; hezkuntza-maila horietara egindako egokitzapena, eta A1 eta A2 Europako Erreferentzia Mailen adierazleen deskribapena. Horren arabera zentroetan erabiltzeko lehen Lan Gida eta ikasgeletan esperientzia gauzatzeko proposamena egin zen. *M<sup>a</sup> de la Calle Alonsok*, *Belén Gomez Romerok*, *Miguel Angel Robledok* eta *Carmen Alariok* aholkatuta, eta *Elisa Vazquez-ekin* elkarlanean, Galizian hainbat zentro hautatu ziren eta hautatutako zentroetan esperientziazio-taldeak antolatu. Irakasle hauek osatu zituzten taldeak: *Belén Gómez Romerok*, *Antonia Lópezek*, *Fernando Marquez Pinhalek*, *Joaquín Muniosguren Prietok*, *Miguel Angel Robledok*, *Yolanda Rodríguez García*, *María Fernández Vivasek*, *M<sup>a</sup> Soledad Varela Ferrerasek*, *M<sup>a</sup> del Pilar Enríquezek*, *Felisa González Villafañezek*, *M<sup>a</sup> Teresa Martín Casadok*, *Amelia Garrote Bernabék*, *Teresa Díez Díezek*, *Mercedes Arauzo García*, *M<sup>a</sup> Concepción Adame Gallegok*, *Adoración de Fuentes Martínek*, *Juana Fernández Gonzálezek*, *Raquel Antolín Gonzálezek*, *M<sup>a</sup> Isabel Calvo Blancok* eta *Montserrat Fernández Lorenzok*. Lan-taldekoen gogoari eta sormenari nahiz ohiko saioetan eta saio birtualetan egindako ekarpen baliotsuei esker, saio birtual horietarako, beren beregiz, Miguel Angel Robledo Ortegak sortu zuen web-orriari esker eta Valladolideko Unibertsitateko Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko *M<sup>a</sup> Stella Pérez Blanco* bekadunaren laguntzari esker egin ahal izan zen Gida Didaktiko hau. Azkeneko idazte-lanak *Belén Gómez Romerok*, *Miguel Angel Robledo Ortegak* eta *M<sup>a</sup> de la Calle Alonso Ramírezek* egin dituzte, *Carmen Alario Trigueros*ek koordinatuta.

Aipatutakoekin batera proiektu hau egiteko orduan *Juan Carlos García García* marrazkilariaren eta *Daniel Martínez de Castro* diseinugilearen laguntza ezin baliotsuagoa izan dugu. *Juan Carlos García García* irudi bilakatu ditu gure ideiak eta sormen handiko irtenbideak proposatu dizkigu, eta *Daniel Martínez de Castrori* zor diogu horren sormen handiko diseinua. Biek hala biek lanean izan duten ilusioari eta gogoari esker hezurmamitu da zuon seme-alabatxoek eskuetan izango duten dokumentu erakargarri hau.

Aldi berean, maila ezberdinetako ikasle, irakasle eta zuzendaritzei batera, esperientzia pilotoa egin den zentroetako umeen familiei lankidetasuna eskertu nahi diegu. Horiek gabe lan proposamen hau ez zatekeen posiblea izango:

*CRA de Tremor de Arriba (León)*  
*CEIP. Ntra. Sra. de Ronte (Osorno. Palencia)*  
*CC. Modesto Lafuente (Cervera de Pisuergo. Palencia)*  
*CEIP. Ramón Caronde y Thovar (Palencia)*  
*CEIP. Ignacio Martín Varó (Valladolid)*  
*CEIP. A Ravadeira (Oleiros. A Coruña)*  
*CEP. De Galán (Ateixo. A Coruña)*

Dokumentu honek, pilotajearen ikusi dugun bezala, kulturen arteko ezagutza eta elkar ulertzea bultzatzen dituzten jarduerak egiten laguntzea espero dugu.



# Nire lehen Portfolioa

## Aurkibidea

### 1. Sarrera

### 2. Irakasleentzat gida

1. JARDUERA: dokumentua ezagutu
2. JARDUERA: HIZKUNTZEN BIOGRAFIA: HPE pertsonalizatu
3. JARDUERA: BIOGRAFIA eta inguruan dutena
4. JARDUERA: DOSSIERRA
5. JARDUERA: HIZKUNTZEN PASAPORTEA:  
jolasarekin lehen harremana
6. JARDUERA: HIZKUNTZEN PASAPORTEA:  
autoebaluazio-jolasa

### 3. Lehenengo gehigarria

ERREFERENTZIA MAILA: autoebaluazio-taula

DESKRIBATZAILE TAULAK: A1 eta A2 Erreferentzia-mailak

A1.1, A1.2, A1+, A2.1, A2.2, A2+

### 4. Bigarren gehigarria

FAMILIENTZAT GIDA

# Sarrera

## Zer da Portfolioa?

Haurrak inguruko kulturez edo hizkuntzez nola jabetzen diren idatziz jasotzeko ohitura sustatzen duen dokumentua da. Dokumentu pertsonala da eta ikasle bakoitzak berea izango du.

Dokumentuak ikasleei balioko die, esperientzia pertsonalei buruzko gogoeta egin eta egiten dituzten aurrerapenak ebaluatu ondoren, aurrerapen horiei buruzko oharra hartzeko, helmuga berriak finkatzeko eta, bai ikastetxean bai kalean, noiz eta nola ikasten duten hausnartzeko. Laburbilduz, dokumentu hau ikasleen ikasteko prozesuaren lekukoa izango da.

Portfolioak lagunduko die aberastasuna eta aniztasuna lortzeko erabilitako bitartekoez biziki eta kontzienteki ohartzeko. Lagunduko die, orobat, hizkuntza ikasteko eta ikasten trebatzeko bideak bilatzen eta beren nahiak eta motibazioak ongi bideratzen. Portfolioak, azken batean, beren autoestimua hobetzen, beren autonomia indartzen eta ikasteko estrategiak garatzen lagunduko die ikasleei.

## Zer da hizkuntzen Portfolioa?

1998-1999 eta 1999-2000 urteetan, Europako Kontseiluaren ekimenez, atzerriko hizkuntzen Portfolio-egitasmo ugari saiatu eta egin dira Europan.

Portfolio horiek ikasleei atzerriko hizkuntzetan duten gaitasuna eta haien esperientzia interkulturelei eta pertsonalei buruzko informazioa biltzeko aukera ematen diete.

## Zergatik eta zertarako hizkuntzen Portfolioa?

Ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntza ez diren beste hizkuntza batzuk ezagutzea berria da gure herrialdean, hezkuntzako lehen mailatan, bereziki. Hala ere, ikasgeletan hizkuntza bat baino gehiago izatea ez da berria gure artean: zentro guztiek programazioetan bi eleko proiektuak dauzkate, beste batzuek indarrean dituzte ingeles hizkuntzaren sarrera goiztiarra bultzatzen duten proiektuak, eta, gainera, gaur egun, mugikortasun soziolaborala dela eta, oso ohikoa da inguruko hizkuntzak ez diren hizkuntzak hitz egiten dituzten umeak topatzea.

Orain arte, horrelako egoerak salbuespenak ziren eta "arazo" bilakatzen ziren zentroetan. Orain arte, bakoitzak modurik egokienean erantzun behar izaten zion arazo horri. Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratuak egoera horiei aldeko irizten die eta egoera eleaniztuneko ikasgelak, arazotzat hartzen ziren ikasgela horiek, inguru eleaniztun bilakatzea proposatzen du. Hau da, proposatzen du hizkuntzen eta kulturen arteko harreman hori erabiltzea mugarik gabe, beste hizkuntza batzuk ikasteko. Hori horrela eginez gero, kultura anitzeko heziketa zehar-lerro bilakatzen da eta ikastetxearen eginbeharra ez ezik, eskola-komunitate osoarena ere bada. Oinarrizko helburu bakarra du heziketa-eredu horrek: munduari begiratzeko eta mundua interpretatzeko era guztiei begirunea zor zaiela eta eleaniztasuna aberastasuna dela, aldarrikatzea.

Lehen Portfolio honen helburua da ikasleen bi oinarrizko heziketaguneen arteko komunikazioa, hau da, etxearen eta eskolaren arteko komunikazioa bideratzea. Familiek eta irakasleek bizi duten kultura-aniztasun giro hori aberasgarri bilakatu behar da, eta, horren bitartez, bizitza osoan ikasten jarduteko eta ezagutza eraikitzeko gogoia eta irrika ikasleen artean piztu.

"Nire Lehen Portfolioa" ikasleek hizkuntzetan (ama-hizkuntzan, inguruko hizkuntzetan edo atzerriko hizkuntzetan) aurreratutakoa idatziz jasotzeko egina dago.



## Zer helburu ditu "Nire Lehen Portfolioak?"

1. Portfolioa egunero erabiltzeak xede hau du: umeak munduaren aurrean ikuspegi baikorra izateko eta gainontzekoekin hitz egiteko era asko dagoela jabetu daitezela. Horretarako, aintzat hartu behar da inguruan dutena (etxeetan erabiltzen diren hizkuntzak; hizkuntza bera erabili arren, lagunek erabiltzen dituzten hizkuntza-aldaerak; etxean egiten diren beste gauza batzuk —beste hizkuntzetan ikusitako bideoak edo filmak, bidaietan erabiltako hizkuntzak—; edo etxean erabiltzen diren beste hainbat ezagutze-estrategia hezigarriak direla aitortzea) eta ikasteko jakin-mina piztu ikasleengan.
2. Aurreko helburu hori lortzearren, haurren garapen pertsonaleko bi esparruen arteko harremana —etxea eta eskola— indartu egin behar da. Eta hori lortzeko, eskolan aintzat hartu behar da etxean ikasitakoa eta biek, eskolak eta etxeak, batera jokatu behar dute eduki berriak zehaztean eta akuilatzean.
3. Portfolioaren helburua da umeak egunero ikasten duten horretaz poliki-poliki jabetzea. Hori horrela izan dadin, Portfolioak ikasten dutena idatziz jasotzeko aukera eskaintzen die, eta, era berean, egiten dutenari buruzko gogoeta egiteko aukera; hala nola, nola lortzen duten elkarrekin komunikatzea, eta komunikatzeko zer trebetasun, zer estrategia eta zer gaitasun erabiltzen dituzten. Horretaz gainera, Portfolioak ikusarazten die hizkuntza eta kultura mailan ikasten dituzten eduki berriak lehenago zituzten ezagueretan oinarritzen direla, eta ikasten dituzten hizkuntza berri horiek munduaren ikuskera osatzen laguntzen dietela.
4. Hizkuntzak ikastea bizitza osoko lana dela adierazten du eta ikasle txiki horientzat Portfolio hau dela hasiera. Guk dakiguna ez da betiko. Berritu eta zabaltzen ez bada, edo esperientzia berriz osatzen ez bada, ez aurrera ez atzera geratzen da. Portfolioak umei balioko die ikasi dutena autoebaluatzeko eta jomuga berriak ezartzeko.

## Nolakoa da "Nire Lehen Portfolioa"?

Portfolioa norberaren hizkuntza-egoeratik abiatzen da. Hiru atal ditu: Hizkuntza-biografia, Dosierra eta Hizkuntza-pasaporteak. Eta bi eranskin. Hizkuntza-Biografian ikasleek, lehenik eta behin, inguruko hizkuntzak ezagutu behar dituzte. Ondoren, beren inguruan erabiltzen direnak aztertuko dituzte. Hala nola, gertuko senideek erabiltzen dituztenak (aitak edo amak lanean erabiltzen duten beste hizkuntza bat, beste herriren edo erkidego batean jaioetako aiton-amonek erabiltzen dutena, bidaiaren batean erabili izan dutena) edo beste ohitura batzuk dituzten ikaskideek erabiltzen dituztenak edo telesaiotako, filmetako edo bideo-jokoetako pertsonaiek erabiltzen dituztenak.

**Biografiak** aukera ematen digu ikasleei beste hizkuntza batzuk ere badirela jakinarazteko, horiek ikasteko inguruko gizakiek garrantzia handia dutela, eta horrek guztiak erraztu eta sustatu egiten duela ikaskuntza soziala.

**Dosierrari** esker, ikasleek ikasiko dute gela barruan zein kanpoan egiten dituzten jardueren artean aberatsenak aukeratzen eta betetako atazen artean egokienak gordetzen, egindako lanaren isla izan daitezela. Dosierra ikaslearen altxorren gordailua izango da. Bertan bilduko dira gelan egindako lanak (marrazkiak, txanponak, bideoen azalak, txartelak eta abar) eta ikasleen iritziz gordetzea merezi duten lan guztiak.

Azkenik, **Hizkuntzen Pasaportea** dugu. Dokumentu honek bi zati ditu. Lehenengoa mahai-joko bat da eta auto-ebaluazioa du helburu. Dokumentuaren atzeko aldeak, berriz, beste helburu hau du: umeak Europako Erreferentzia Marko Bateratuan zehazten diren erreferentzia maila bateratuak ezagutzea.

Portfolioaren barruko aldean joko bat dago. Jokoak bi helburu ditu:

Lehenengoa, komunikazio-egoerak ezagutzea, ataza ohikoenak bereiztea eta atazaren osagaiei buruzko gogoeta egitea da, esate baterako, elkarrizketaren egitura nolakoa den, hitza nola hartu behar den, rol sozial ohikoenak edo hitzezkoak ez diren estrategia arruntak zein diren. Horrekin guztiarekin hau lortu nahi da: ikasleek ezaguera metakomunikatiboa eta metakognitiboa hartzen ikas dezaten trebatzea. Aipatutako zeregin horietan guztietan lagunduko diegu beren egitekoa zein den gogora ekartzen, berbazko adierazpen ohikoenak zein diren ezagutzen eta dituzten ezaguerak gauzaten.

Bestalde, jokoaren bitartez hizkuntza-jardueraren araberako (ahozko ulermena, ahozko adierazpena, elkarrizketa, idatziaren ulermena eta idatzizko adierazpena) gogoeta egiten erakutsiko zaie. Aukeratutako egoerak adin hori duten ikasleek sarritan bizi izaten dituzten arloetako egoerak izaten dira. Egoera horietan trebetasun bat baino gehiago erabiltzen badituzte ere, beti izaten da besteen gaintik nabarmentzen den bat edo beste eta, hori dela eta, ez da gaizki-ulertzerik izaten. Komunikazio-egoera, egindako hizkuntza-jarduera eta jarduera hori betetzeko behar den ezaguera nolakoa den ezagutu ondoren, eskuratu nahi diren helburuak zehaztuko dira. Atazaren zailtasuna umeekin batera hazten denez, EEMBK zehazten dituen A1 eta A2 mailak hiru azpimailatan banatu dira (I. Eranskina). Bide hori erabilita, ataza guztiek, ezezagunak izanda ere, erantzun egokia izan dezaketela ikusarazi nahi zaie ikasleei. Horrezaz gain, maila guztiak garaturik egotearen helburua da irakasleek hizkuntzetan eta komunikazioan, oro har, egiten diren aurrerapenei buruzko gogoeta egitea.

## Irakasleen jardunerako ohar-iradokizunak

Portfolioa ikasleen dokumentua da. Irakasleek honako hauetan ahalegindu behar dute:

**Gidatu** ikasleen jarduera, ikasitakoa auto-ebalutzeko estrategiak gara ditzaten.

**Defenditu** Portfolioa ezin dela notak kontrolatzeko edo aukeraketaren bat egiteko bitartekotzat erabili.

**Bitartekari lana egin** eskolako eta familiako artean, Portfolioa erabiltzea esanguratsua izan dadin; eta Portfolioa zer den, zertarako den eta zer balio duen aditzera eman familietakoei.

**Harremanetan jarri** zikloko eta eskolako gainontzeko irakasleekin, jarraibideak taxutzeko eta hizkuntza bakoitzari zer kolore egokituko zaion erabakitzeke.

**Informazioa eman** gurasoei gutunen, elkarrizketen edo informazio-oharren bidez, HPE badela jakin, eta duen garrantzia eta dituen helburuak ezagut ditzaten.

**Bildu** gurasoekin aldi behin, HPEri buruzko informazioa emateko, familiek HPE erabiltzeko orduan duten garrantziaz ohartarazteko eta familien laguntzari esker egin litezkeen jarduerak antolatzeke. Horrezaz gain, irakasleek "famiarentzako gida" (II. Eranskina) eman beharko diete gurasoei eta gida hori jarraitzeko zenbait ekintza berezi erakutsi.

**Pribatutasuna ziurtatu.** Ikasleek Dossierrean bilduko dituzten dokumentuak ikasleenak izango dira eta ez beste inorenak. Eta zorrozki errespetatuko da ikasleen eskubide hori.

## Familiakoen jardunerako ohar-iradokizunak.

**Eragilea izan.** Dossierra osatzen ikasleei lagundu.

**Lagundu** hurrei Dossierra gizentzen.

**Irakatsi** dokumentua zaintzen.

**Erantzun** haurren galderei beste kultura, hizkuntza edo ohitura batzuei buruzko galderak egiten dituztenean.

**Erakutsi** interesa eta arreta eskaini umeei beren aurrerapenei buruz eta aurkitu dituzten ikasteko bide berriei buruz Portfolioan egiten dituzten oharrei.

(ikusi proposatutako jarduerak "Familiaren Gida" II. Eranskina)

HIZKUNTZEN PORTOFOLIO EUROPARRA

# **Nire lehen portfolioa**

# **Irakasleentzat gida**



# Jardueren zerrenda

	3 urte;	4 urte;	5 urte i edo gehio
<b>1. jarduera: Dokumentua ezagutu</b>			
1.1 Hurbiltze-jarduera	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
1.2 Hurbiltze-jarduera eta Portfolioaren egitura	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>2. jarduera- HIZKUNTZEN BIOGRAFIA: HPE pertsonalizatu</b>			
2.1 Gelakideak eta ni	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.2 Ni naiz	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>3. jarduera- BIOGRAFIA eta inguruan dutena</b>			
3.1 "Gure Mundua" izeneko txokoa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.2 Ados jartzen gara zu eta biok...	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.3 Hizkuntzen eta Kulturen txokoa	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.4 Hizkuntzen Biografia osatzen dugu	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.5 Nork kantatuko dit kanta hori?	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.6 Ni jolasten naiz	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.7 Ipuina ez den istorio bat	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>4. jarduera: DOSIERRA</b>			
4.1 Nork jaten du?	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.2 Altxorrak	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
4.3 Multzoak	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>5. jarduera - HIZKUNTZEN PASAPORTEA: jolasarekin lehen harremana</b>			
5.1 Ikusi-makusi	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
5.2 Zer ikusten duzu?	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
5.3 Non aurki dezaket?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>6. jarduera -HIZKUNTZEN PASAPORTEA: -autoebaluzio-jolasa</b>			
6.1 Zer egiten dut?	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
6.2 Adarretik adarrera nabil	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
6.3 Iibilitako bidera itzultzen naiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>



# 1. JARDUERA - Dokumentua ezagutzea

		3 urte	4 urte	5 urte edo gehiago
1.1	Hurbiltze-jarduera	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
1.2	Hurbiltze- jarduera eta Portfolioaren egitura	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Ebaluazioa - 1. jarduera

## 1.1. jarduera- Hurbiltzea

### Helburuak

- Portfolioa erabiliz, liburu bat irekitzeko hainbat modu ezagutzen saiatu.
- Ikasgelako materiala erabiltzeko ohar errazak ulertu.

### Materiala

- Ikaslearen Portfolioa.
- Ipuinak.

### Jarduerak

Jolas moduko hau Portfolioa irekitzen eta ixten trebatzean datza; izan ere, Portfolioaren egitura ez da liburu arruntarena.

- Lehenik, zenbait ipuin-liburu eskuartean erabili, edukietan (irudiak eta letrak...) eta ezaugarrietan (azala, orrialdeak...) erreparatzeko.
- Portfolioa behin eta berriz ireki eta itxi dezatela aginduko diegu dokumentuarekiko jakin- mina baliatuta.
- Behin eta berriz zabaldu eta tolestu dezatela eskatuko diegu; beste momentu bateko lana izango da, ordea, barruko irudietan erreparatzea.
- Azkenik, aurrez erabakitako lekuan utziko dute txukun-txukun.

## 1.2. jarduera- Hurbiltzea eta Portfolioaren egitura

### Helburuak

- "Liburu" bat irekitzeko hainbat modu atzeman Portfolioaren bidez.
- Portfolioaren egitura osatzen duten zatiak aztertu.

### Materiala

- Norberaren Portfolioa.

### Jarduerak

- Dokumentua modu egokian zabaltzeko jarduera errepikatuko dugu; oraingoan ere sortzen dien jakin-mina baliatuko dugu. Erabat zabaltzeko eta tolesteko ere eskatuko diegu.
- Marrazki bat bilatzeko eta hatza gainean jartzeko eskatuko zaie.
- Deskribatu ahala, eszena aurkitzeko eskatuko diegu.
- Portfolioko irudiekin lotutako eguneroko bizitzako egoerak izango ditugu hizpide.

## Ebaluazioa - 1. jarduera

### Helburuak lortzeko emandako pausoen jarraipena

Modu egokian zabaltzen dute Portfolioa?

Beharrezkoa ote da eskuztatze-lana errepikatzea?

Arazorik gabe aurkitzen dituzte aipaturako eszenak?

Zein eszenak behar du laguntza handiagoa ulertua izateko?

Bultzatu ditu Portfolioak haurren eguneroko esperientzien inguruko elkarrizketak?

### Parte-hartze maila

Jarduera horietan gogo onez hartu dute parte?



## 2. JARDUERA- HIZKUNTZEN BIOGRAFIA: HPE pertsonalizatu

		3 urte	4 urte	5 urte edo gehiago
2.1	Gelakideak eta ni	<input checked="" type="checkbox"/>		
2.2	Ni naiz		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Ebaluazioa - 2. jarduera

### 2.1. jarduera - Gelakideak eta ni.

#### Helburuak

- Gela osatzen duten pertsonak ezagutu.
- Portfolioak pertsonalizatu Biografiaren lehenengo atala landuz.

#### Materialak

- Haurren eta irakaslearen argazkiak (fotokopiak erabil daitezke).
- Ikasleen Portfolioak.

#### Jarduerak

- Alfonbra gainean edo biribilean, ikasle bakoitzak bere argazkia jarriko du erdian eta denen artean multzoa osatuko dute.
- Haur bati eskatuko diogu argazkien multzoan aurki dezala gelakide baten argazkia.
- Argazkia aurkitutakoan, dagokionari emango dio.
- Azken honek Portfolioaren azalean itsatsiko du bere argazkia. Modu horretan bereganatu egingo du dokumentua.

#### Ekintza osagarria

Argazkien multzoa osatu ondoren, haur bakoitzari eskatuko diogu berea aurkitzeko eta Portfolioaren azalean itsasteko.

### 2.2. jarduera - Ni naiz.

#### Helburuak

- Ikasgela osatzen duten pertsonak ezagutu eta haien izenaren errepresentazioari antzeman.
- Biografiaren lehen zatia landuz, Portfolioak pertsonalizatu.

#### Materialak

- Haurren, irakasleen eta ikastetxeko langileen argazkiak.
- Izena idatzita duten kartoi mehezko txartelak.
- Ikasleen Portfolioak.

### Jarduerak

- Alfonbra gainean edo biribilean, bi multzo osatzen dira: bata, argazkiena eta bestea, haurren izenena (beraiek edo guk idatzita).
- Norberak multzo horietan izena eta argazkia bilatu behar ditu.
- Bakoitzak berea aurkitu duenean, Portfolioa emango zaie eta argazkia azalean itsatsi eta dagokion lekuan beren izena kopiatuko dute.
- **Jarduera osagarriak:**  
Portfolioak banatuko zaizkie, eta irakurtzen dakiten haurrek azaleko datuak irakurriko dituzte. Frantsesez eta ingelesez idatzitako esaldietan errepararaziko diegu ea zer hizkuntza den badakiten. Argazkia itsatsiko dute azalean eta izena idatziko dute dagokion lekuan.

### Ebaluazioa - 2. jarduera

#### Helburuak lortzeko emandako pausoen jarraipena

Gai dira argazkiko pertsonak identifikatzeko?

Gai dira beren izen idatzia antzemateko? Eta besteena?

#### Parte-hartze maila

Proposatutako jardueretan gogotik hartu dute parte?

Beharrezkoa materiala lortzen eta jarduerak egiten saiatu dira?

### 3. JARDUERA - BIOGRAFIA eta inguruan dutena

		3 urte	4 urte	5 urte edo gehiago
3.1	"Gure Mundua" izeneko txokoa	<input checked="" type="checkbox"/>		
3.2	Ados jartzen gara zu eta biok...		<input checked="" type="checkbox"/>	*
3.3	Hizkuntzen eta Kulturen txokoa		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.4	Hizkuntzen Biografia osatzen dugu		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.5	Nork kantatuko dit kantu hori?		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.6	Ni jolasten naiz		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
3.7	Ipuina ez den istorio bat		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

**Ebaluazioa - 3. jarduera**

Gelara haur berriak etortzen diren bakoitzean 3.2 jarduera (4 urtekoena) errepikatzea gomendatzen dugu.



#### 3.1.jarduera- "Gure Mundua" izeneko txokoa.

Haurren mundua islatuko duen txoko bat sortu, hizkuntzen ikaskuntza-prozesuko esperientziak jasotzeko. "Hizkuntzen eta Kulturen txokoa" izango da hori 4 urteetan zehar (3.2. jarduera).

##### Helburua

- Beren bizipenak kontatu.
- Besteen esperientziak ezagutzen eta balioesten ikasi.
- Hainbat eratako jolasak ezagutu.
- Erritmoa duten esaerak, leloak, abesti tradizionalak edo haur-abestiak ezagutu.

##### Materialak

- Garrantzizkoa deritzoten eta beren esperientzietan oinarrituta dagoen edozer jasotzeko txokoa eratzeko materialak.

##### Jardueraren garapena

Alfonbra gainean edo biribilean, galderak egingo zaizkie, beren bizipenen inguruan elkarrizketa bultzatzeko.

- Ikasleek ekarritako materialak hizpide, elkarrizketa bultzatuko dugu gelan. Ekarritako objektuak ikaslearentzat duen garrantziaz arituko dira, eta haien esperientziak eta lehentasunak komentatuko.
- Etxeko norbaitek irakatsitako abestiren bat edo olerkiren bat irakatsiko diete gelakideei.
- Etxeko norbaiti eskatuko diote jolasen bat irakasteko, eta jolas horren berri emango diete gelakideei.
- Txoko honetan ikasleek hizkuntzekin izandako esperientziekin lotutako edozer bilduko dugu.

### 3.2. jarduera- Ados jartzen gara zu eta biok,...

Jarduera hau hasi baino lehen gomendatzen dizuegu Portfolioko egitasmoan sartuta zaudeten irakasle guztiak bat etor zaitetzela hizkuntzak ordezkatzeko erabiliko dituzuen koloreetan. Era berean, gurasoekin bilera bat egitea gomendatzen dizuegu, jardueren eta erabilitako hizkuntzen berri izan dezaten.

#### Helburuak

- Hainbat hizkuntza badirela ezagutu.
- Hizkuntza bakoitzari dagokion kolorea zehaztu.
- Portfolioaren biografiaren azalean hizkuntza bakoitzaren kolorea finkatu.

#### Materialak

- HPEren lau koloreei dagozkien biribilak: horia, urdina, gorria eta berdea.
- Hizkuntzen izenen txartelak.

#### Jarduera

- Hizkuntza-aniztasunaren ideia bultzatzen lagunduko digun zernahi: kanta herrikoi bat, hizkuntza berriarekin lotutako pertsonaiaren bat, jolas bereziren bat, ohituraren bat, ziklo horretan diharduten irakasleen aniztasuna...
- Lau koloredun biribilak hartu ondoren, erabakiko dugu hizkuntza bakoitzari zein kolore emango diogun. Kolore horiek ikastetxeko irakasleek ezarritako programarekin bat etorri beharko dute (batez ere ikastetxe horretan programa desberdinak abian badira).
- Haur bakoitzak hizkuntzen izena itsatsiko du edo erabakitako koloretako biribilen ondoan idatziko du, HPEren Biografian (azalean).
- Kodea ezarri ondoren, azaleko behe aldeko testua ozen irakurriko dugu, haur bakoitzak osa dezan.

### 3.3. jarduera- Hizkuntzen eta Kulturen txokoa.

"Gure Mundua txokoa" "Hizkuntzen eta Kulturen txokoa" bihurtuko dugu eta bertan kokatuko dugu, lortu ahala, edozein kulturatako eta hizkuntzatako materiala: zintak, bideoak, kartelak, ipuinak, ontziak, kromoak, jolasak... Txokoa osatzen eta aberasten joango gara 5 urte edo gehiagotan.

#### Helburuak

- Hainbat hizkuntza eta hainbat adierazpide badirela ohartzea, eta bakoitza kolore batekin lotzea.
- Hainbat hizkuntzatako abestiak, bideoak, testua duten kartelak, beste hizkuntza batzuetan idatzita dauden ontziak, liburuxkak, aldizkariak, CDak...

#### Materialak

- Ikasleen hizkuntzei dagozkien koloreetan bildutako apalak edo kaxak prestatuko ditugu. Gune horietara erraz heldu ahal izango dira haurrak. Bertan kokatuko ditugu hizkuntza bakoitzarekin lotutako aurkikuntza guztiak. Komenigarria izango litzateke irakasleek jarduera hauek hizkuntza bakoitzari lotutako pertsonaiak erabiliz sustatzea.

#### Jarduerak

- Benetako materialak erabiliz (herri-kanta bat, pertsonaia bat, jolas bat...), hizkuntza- eta kultura-aniztasuna zer den ikusi ahal izango dugu.
- Material horietako hizkuntzei antzeman dietenean, ezagututako hizkuntza horiekin lotutako material gehiago bilatzera bultzatuko ditugu.
- Galderen bidez elkarrizketa bultzatuko dugu: Guztiok berdin hitz egiten al dugu? Bada desberdin hitz egiten duenik? Zer soinu dute ezagutzen ditugun hizkuntza horiek?
- Ikasturte guztietan landu beharreko jarduera da; izan ere, ikasle berriak etortzen dira beste lurralde batzuetatik, esperientzia berriekin topo egiten dute egunero. Aurkitzen dituzten materialak, grafia desberdinetako laginak, beste kulturetako tradizioak eta bestelakoek hizkuntza horiek nolakoak diren aztertzen lagunduko digute, eta gogoetaren bidez, ezaugarri berezienak ikusten.

Txoko hau era guztietako materialez hornituz joango da ikasturtez ikasturte.

### 3.4. jarduera - Hizkuntzen Biografia osatzen dugu.

#### Helburuak

- HPEko Hizkuntzen Biografian zehaztu zein pertsona diren garrantzizko bizitzeko eta ikasteko orduan.
- Gogoeta egin eta HPEn txertatu zer egin dezaketen beste hizkuntzetan eta zer motatako jolasak egin ditzaketen.
- Beren zaletasunei eta bidaiei buruzko datuak jaso.

#### Materialak

- Ikaslearen Portfolioa.
- Pertsona ospetsuen argazkiak eta marrazkiak.

#### Jarduerak

- 3.5., 3.6. eta 3.7. jardueren bidez, zenbait material jaso ahal izango dugu, Hizkuntzen Biografiako atalei egoki erantzuteko.
- Egindako bidaia bat gogoratzeko eskatu eta konta diezagutela; erantzun diezaiotela honelako galderari: norekin joan ginen?, nola?, zertarako?...
- Aipatu gustuko dituzten janariak, abestiak, filmak, marrazki bizidunak...

### 3.5. jarduera- Nork kantatuko dit kanta hori?

#### Helburua

- Erritmo- eta kultura-adierazpenak, herri-kantak, leloak edo haur-kantak ezagutu.

#### Materialak

- Erritmo- eta kultura-adierazpenak, herri-kantak, leloak edo haur-kantak.
- Kaseteak, CDak

#### Jarduerak

- Familiakoei laguntza eskatzen zaie, haurrari abesti edo leloren bat irakats diezaioten.
- Aurki dezatela etxean abestiren bat edo leloren bat irakatsiko dienik; hobe dakiten kantu bat bada eta jarduera batekin lotuta badago: bidaiatzearekin, oheratzearekin,...
- Ikaskideei irakatsi behar diete nola dantzatzen den, zer mugimendu egin behar diren...
- Ikasi ondoren, eskatuko diegu kontu diezagutela nork irakatsi zien abestia eta horrela helduko diogu norberaren bizitzako pertsona garrantzitsuenen biografiari.
- **Jarduera osagarriak:** Eskatu abestiren bat, leloren bat, ... irakatsi dien pertsonari etor dadila ikasgelara. Argazkia edo marrazkiren bat egin diezaiokegu bere etorrera eta laguntzaren lekukotasuna jaso ahal izateko dosierrean (altxorren karpeta)

### 3.6. jarduera- Ni jolasten naiz.

#### Helburuak

- Hainbat kulturatako jolasak eta horien arauak ezagutu eta irakatsi dizkiguten pertsonekin lotu.
- Desberdintasun txikiak atzeman eta jolasaren bidez hainbat hizkuntza ezagutu.

#### Materialak

- Hainbat jolas.

#### Jarduerak

- Familiei laguntza eskatzen zaie irakats diezaguten jolas tradizionalen bat, haurtzaroko jolasen bat...
- Nola jolasten den irakatsi beharko diete ikaskideei
- Ikasi eta gero, jolasa nork irakatsi zien galdetuko diegu. Beren Biografian pertsona garrantzitsuen zerrenda zabalduko dugu horrelakoekin.
- **Jarduera osagarriak:** Jolasak irakatsi dizkion norbaiti ikasgelara etortzeko eskatu. Argazkiren bat edo marrazkiren bat egin ahal izango diegu beren etorreraren eta laguntzaren berri jasotzeko Dosierrean (altxorren karpeta)

### 3.7. jarduera- Ipuina ez den istorio bat.

#### Helburuak

- Gelakoen aurrean beren bizitzako gertakizunen bat kontatzen ikasi.
- Kontatuko ditugunak nolako lekuetan eta zein egoeratan gertatzen diren azaldu.

#### Materiala

- Hizkuntzen Biografia (HPE).

#### Jarduera

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan oso ohikoa da norberaren esperientziatik abiatzea; ondoren egin beharreko hainbat lanetan kokatzeko esperientziak dira garrantzizkoenak. Beren kontakizunak eta bizipenak kontatzen edo deskribatzen lagundu behar diegu, galde-erantzunen bidez. Ikastetxean bizi izan ditugun esperientzietatik has gaitzke, kanpoan bizi izandakoak kontatzeko gai izan bitartean.

### Ebaluazioa - 3. jarduera

#### Helburuak lortzeko emandako pausoen jarraipena

Hizkuntza bakoitzarentzat erabakitako koloreek ba al dute oinarririk?

Garbi dute ikasleek hizkuntza bakoitzari dagokion kolorea? Indartu behar ote da identifikazio hori?

Ikasgelako hizkuntza- eta kultura-aniztasunaz jabetzen al dira?

Motibatzen ditu Hizkuntza eta Kulturen txokoak?

3.5., 3.6. eta eta 3.7. jarduerak Dosiererako materialik sortzen dute maiztasunez?

Kideen kontakizunak errespetatzen dituzte eta balioa ematen diete ?

#### Parte-hartze maila

Beren Biografia osatzeko kantu, jolas eta ipuin nahikoa jaso dituzte?

Modu eraginkorrean parte hartzen dute ikasle guztiek ikaskideek ekarritako jolasetan?

Denek parte hartzen dute beste neska-mutilek irakatsitako kantetan?

Era askotako jardueratan parte hartu dute?

Familiek parte hartu eta lagundu dute jarduerak egin ahal izateko materialak lortzen?

## 4. JARDUERA- DOSIERRA

		3 urte	4 urte	5 urte edo gehiago
4.1	Nork jaten du?	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
4.2	Altxorrak	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
4.3	Multzoak	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Ebaluazioa - 4. jarduera

### 4.1. jarduera - Nork jaten du?

#### Helburua

- Hainbat elikagai dagokien hizkuntzekin lotu.

#### Materialak

- Zenbait lurraldetako edo eskualdetako errezetak.

#### Jarduerak

- Gure ikasleek jatearen gozamenarekin esperimentatu dute, baina ez dute ezagutzen jakien jatorria. Mundua ezagutzeko bizipenak izateko, fruta ekar dezatela eskatuko diegu, egin ditzatela errezeta errazak edo parte har dezatela senideren batek egindako errezeta prestatzen eta dastatzen: opilak, tortak, taloak, pastak, cookiak, txorizoa...
- Errezeta egiteko pausoak hurrenez hurren jarraituko dira, edo besterik gabe, jakiei buruz hitz egingo dugu (nondik datozkigun, nola iritsi diren...).
- Jarduera guztietan gela girotzea proposatzen dugu, marrazkiren batean jasotzeko moduko ezaugarriak izan ditzan; horrela, Dosierretik (altxorren karpeta) ateratzen duten bakoitzean, xehetasunak oroituko dituzte.

### 4.2. jarduera- Altxorrak.

#### Helburua

- Gertakari, ohitura eta ospakizunak sorburu dituzten kulturekin lotu.

#### Materiala

- Ikasle bakoitzak ekarriko dituen objektu, ipuin, bideo, paper, apaingarri, bilgarri, etab.



#### Jarduera

Ezohiko edozein gertakizun: urtebetetzeak, gauzeekin lotutako ospakizunak, materialak, jantziak. Horiek izango dira gure altxorrak.

- Ikasle bakoitzak gelara ekarriko ditu gauzak, ipuinak, bideoak, paperak, apaingarriak, bilgarriak... eta beste hurrek asmatu behar dute, objektu horiek zerekin lotzen dituen ekarri dituenak.
- Igarkizunen jolasa: Zer da hau eta zer adierazten du niretzat? Asmatu ala ez, haurrak kontatuko du zer lotura afektibo duen objektu horrekin.
- Objektu hori Hizkuntzen eta Kulturen txokoa gordeta izango dugu aldi batean, guztiek ikus eta azter dezaten.

### 4.3. Jarduera- Multzoak.

#### Helburua

- Ikasgelan aurkeztutako objektuen bidez, ikasitakoa finkatu.

#### Materiala

- Zenbait zorro erabiliko ditugu apaletako objektuak sartzeko.

#### jarduerak

- Objektu guztiak zorro handi batean sartuko ditugu berezi gabe.
- Jolas egingo dugu objektuak identifikatuz, nori ekarri zituen asmatuz eta lotura duten kantuekin, jolasekin eta objektuekin gogoratuz. Dagozkien hizkuntza-esperientziak gogoratzea errazteko, ekarri zuen haurrak aztarnak emango ditu.
- Aurretik egindako jardueretan gertatutakoa erregistratu behar dugu eta berriz begiratu behar dugu, jarduera hori proposatu baino lehen. Ezinbestekoa da objektu guztiak ezagutzea, ekarri zuen haurra mindu baitaiteke.

### Ebaluazioa - 4. jarduera

#### Helburuak lortzeko emandako pausoen jarraipena

Argia al da landutako errezeten eta jatorrizko duten kulturaren arteko lotura?

Jarduera egiteko motibagarria zen ikasgelan sortutako giroa?

Era askotako esperientziak plazaratu dira jardueraren bidez? Ikasleek eskain diezaguketen esperientzia-aberastasuna guztiz baliatu dugu?

Gogoratzen dituzte objektuari, kantari edo jolasari lotutako hizkuntza-esperientziak?

#### Parte-hartze maila

Familiak hurrei errezetak eskuratzen parte hartu al dute?

Elkarlanean aritu dira familiak eta haurrak esperientzia jakinei lotutako objektuak aurkitzen?

Jarduerak egiteko elkarriketetan modu eraginkorrean parte hartu dute

## 5. JARDUERA-HIZKUNTZEN PASAPORTEA: jolasarekin lehen harremana

		3 urte	4 urte	5 urte edo gehiago
5.1	Ikusi-makusi	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
5.2	Zer ikusten duzu?	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
5.3	Non aurki dezakezu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Ebaluazioa - 5. jarduera

### 5.1. jarduera - Ikusi-makusi.

#### Helburua

- Irudietan adierazita dagoena azaldu.
- Eguneroko bizitzan egiten dutenarekin lotu irudiak.

#### Materiala

- HPEko barruko jolasa (Hizkuntzen Pasaporte).

#### Jarduera

- Erdiko irudian irekiko dugu Portfolioa. Egoera bat deskribatuko dugu, eta ikasleak aurkitu egin behar du. Eskatuko diegu aurki ditzatela esate baterako: "haurrak korruan jolasten", "kanta bat kantatzen duen norbait", "abereen bideo bat ikusten ari diren ikasleak", etab.
- Tartetxo bat eman ondoren, eskatuko diegu erakuts diezagutela non dagoen aipatutakoa. Ondoren, egiaztatu egingo dute.
- Bigarren aldi batean eskatuko diegu beraiek proposa dezatela zer aurkitu behar den. Asmatzen duenak irakaslearena egingo du.
- Jarduera horiek ikusita, oroituko dituzte ikasgelan egiten dituzten beste batzuk, eta haiei dagokien leihatila irekiko dute.
- Irakasleak eszena bati lotutako zenbait egoera kontatuko ditu. Irudi horrekin lotutako istorioren bat kontatzeko eskatuko die.

### 5.2. Jarduera- Zer ikusten duzu?

#### Helburua

- Zer trebetasun lantzen den azaltzen duten marrazkiak interpretatu.
- Hitzen eta keinuen bidez, beren bizipenekin estu lotutako egoerak deskribatu.

#### Materialak

- HPEko barrualdea (Hizkuntzen Pasaporte).

**Jarduerak**

- Haurrei eskatzen zaie errepara diezaietela ikusten diren irudiei. HPEko bost zatiak lantzen dira zenbait saiotan (Hizkuntzen Pasaportea): familia, ikastetxea, jolasa (zuhaitzaren ezkeraldea), inguru hurbila (zuhaitzaren eskuinaldea) eta bost trebetasunak lantzen dituzten haur-testu ezagunenak behetik gora (enborraren eta zuhaitzaren adarrak).
- Saio hauetan galdetuko zaie haurrei jolasaren bost zati horietako bakoitzeko leihatiletan zer ikusten duten. Lan hau haurren aurrerapenari estu lotuta egingo da, poliki-poliki.
- Antzez dezatela haur batzuek eszena bat, eta besteek asma dezatela zein den eta non dagoen antzetzutakoaren irudia Hizkuntzen Pasaportean.

**5.3. jarduera- Non aurki dezaket?**

Jarduera hau egiteko irakurrita eta aztertuta eduki behar dira Erreferentzia Mailetarako deskribatzaileen taulak (I. eranskina).

**Helburuak**

- Hainbat jardueraren testuinguruak bereizi.
- Hizkuntzen Pasaporteko bost zatiak bereizten ikasi: familia ingurua, ikastetxe ingurua, jolas ingurua (zuhaitzaren ezkeraldea), inguru hurbila (zuhaitzaren eskuinaldea) eta bost trebetasunak lantzen dituzten haur-testu ezagunenak, behetik gora (enborra eta zuhaitzaren adarrak).
- Ikasleek iragarpen-estrategiak gara ditzatela.

**Materialak**

- Ikaslearen HPEko barrualdea (Hizkuntzen Pasaportea)
- I. eranskina.

**Jarduera**

- Jolasaren zati bakoitza bakarka landuko da (Hizkuntzen Pasaportea).
- Badira jolasean esanahi anitzeko irudiak: sukaldeak, esate baterako, lotuta izan ditzake hainbat testu, ekintza edo egoera (haurraren bilakaeraren arabera zailtasuna dutenak). Esanahi-aniztasun horri errepara diezaioten nahi dugu.

**Jarduera hau aurrera eramateko zati bakoitzean jarraitu beharreko prozedura**

- Lantzen ari garen jolasaren eszenako ekintzei, testuei eta egoerei buruzko elkarrizketa.
- Lantzen ari garen jolasaren eszenako ekintzen, testuen eta egoeren errepresentazio sinbolikoa (keinuaren bidez).
- Asmakizunen jolasa: Haur batek ekintza, testu edo egoera bat antzetzuko du. Besteek Pasaporteko zein eszenari dagokion asmatu behar dute.

## Ebaluazioa - 5. jarduera

### Helburuak lortzeko emandako pausoen jarraipena

Irudietan adierazita dagoen informazioa atera dezakete?

Irudietan adierazitako egoerak identifikatzen dituzte?

Beren bizipenetako egoera hurbilak deskribatzen dituzte?

Keinuak eta mugimendua erabiltzen dituzte espresatzeko?

Jarduera, testu edo egoera horietako batzuk zehaztuta daude Erreferentzia Mailako deskribatzaile-tauletan?

Jarduerei dagozkien zenbait testuinguru bereizten dituzte?

Marrazki jakin bat (eszena) ikusi arren, esanahi anitzekin lotzen dute?

### Parte-hartze maila

Jarduera horietan sortzen diren elkarrizketetan biziki parte hartu dute?

Biziki parte hartu dute eszenetako ekintza, testu eta egoeren errepresentazio sinbolikoan?

## 6. JARDUERA- HIZKUNTZEN PASAPORTEA: autoebaluazio-jolasa

		3-4 urte	5 urte	5 +
6.1	Zer egiten dut?		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
6.2	Adarretik adarrera nabil		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
6.3	Ibilitako bidera itzuli naiz			<input checked="" type="checkbox"/>

**Ebaluazioa - 6. jarduera**

### 6.1. jarduera - Zer egiten dut?

#### Helburua

- Gogora ekarri beren bizitzetako eguneroko ohiturak, besteenekin alderatu ahal izateko (gogoan izan behar dugu ohiturak alderatzeak ez dakarrela berarekin balioespen bat egitea gure aldetik),
- Jarduera zehatza identifikatu.
- Aukeratu ikasi nahi dutena.
- Eranskinak erabiliz, lorpenak ebaluatu.

#### Materiala

- HPEko barruko jolasa. (Hizkuntzen Pasaportea).
- Koloretako eranskinak.

#### Jarduera

- Aldika landuko dira familia ingurua (etxea), eskola ingurua (ikastetxea), jolas ingurua eta inguru hurbila (Hizkuntzen Pasaportea).
- Hitz egingo dugu mahai gainean jartzen dituzten ohitura guztiei buruz; ia beti, deigarrienak izan zaizkienak izan ohi dira.
- Jarduera jakinak identifikatuko dituzte, eta aukeratuko dituzte ikasi nahi dituzten berariazko edukiak.
- Egin ditzaketan lanen autoebaluazioa egingo du, eranskinak dagokion kolorean itsatsiz.

## 6.2. jarduera - Adarretik adarrera nabil

### Helburua

- Lotu komunikazio-jardueretan erabiltzen ditugun trebetasunak eta dagozkien marrakiazkiak.
- Identifikatu jarduera eta aukeratu ikasi nahi dutena, eta eranskinak erabiliz ebaluatu beren lorpen maila.

### Materiala

- Ikaslearen Portfolio barruko jolasa.
- Koloretako eranskinak.

### Jarduera

- Banan-banan landuko dira zuhaitzaren adarrak behetik gora, bost trebetasunak lantzen dituzten haur-testu ezagunenak landuz (Pasaporteko enborra eta adarrak).
- Ikurrak identifikatu ondoren, ikasitako eta esanguratsuak bihurtutako ezagupenak adierazi eta ikasi beharreko hurrengoak zehaztu.
- Leioa ireki eta ikasitakoari dagokion hizkuntzaren koloreko eranskina itsatsiko du gainean.
- Gurutze batez zehaztuko du zer ikasi nahi duen. Haurrak ikasi nahi duena ikasi duela uste duenean, dagokion koloreko eranskina itsatsiko du

Jarduera hau gero eta maizago egingo dugu, jada ezagutzen dutena berrikusteko eta helburu berriak jartzera bultzatzeko.

## 6.3. jarduera - Ibiltako bidera itzultzen naiz

### Helburua

- Berrikusi eta aztertu egiteko gai ziren trebetasunak eta jarduerak (eranskinez markatutako trebetasunak eta jarduerak).
- Ikasketa-prozesuan lortutako aurrerapenak ikusi.
- Egindako aurrerapenak indartu.

### Materialak

- Ikaslearen Portfolio barruko jolasa
- Koloretako eranskinak.

### Jarduera

- Aldizka berrikusiko da HPEko jolasa (Hizkuntzen Pasaportea), eta jada eranskina duten itemetara bideratuko dugu elkarrizketa.
- Ikasle bakoitzak berrikusi eta aztertuko ditu ikasketetan egindako aurrerapenak. Modu horretan, bakoitzak argi izango du zenbat aurreratu duen. Beren aurrerapenen kontzientzia izango dute Erreferentzia Mailako deskribatzaile-taulak erabiltzen baditugu.

## Ebaluazioa - 6. jarduera

### Helburuak lortzeko emandako pausoen jarraipena

Beren bizitzako ohiturak eta egunerokotasunak balioesten eta alderatzen dituzte?

Ekintzak, jarduerak eta trebetasunak identifikatzen dituzte? Eta ikasi nahi dituztenak hautatzen al dituzte?

Zuzen ebaluatzen dituzte aurretik aukeratutako jarduerak eta lortutako trebetasunak?

Beren buruari helburu berriak jartzeko gai dira?

Ikasketa-prozesuan egindako aurrerapenei antzematen diete?

### Parte-hartze maila

Parte hartzen dute aktiboki jarduerak aurrera eramateko elkarrizketan?

Parte hartzen dute eta elkarlanean aritzen dira beren ikasketa-prozesua indartzeko?



	<b>A1</b>	<b>A2</b>	<b>B1</b>	<b>B2</b>	<b>C1</b>	<b>C2</b>
<b>Aozkoa</b>	Gai naiz hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko nitaz, nire familiaz eta inguruko gauzez, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz). Iragarki eta mezu labur, sinple eta argietan gai naiz ideia nagusiaz jabetzeko.	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiez diharduten telebista- edo irrati-saioetako ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak. Gai naiz hizkuntza estandarrean ematen diren film gehienak ulertzeko.	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista-programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta komunikabideetako ere, baita jatorrizko hitzunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
<b>Idatzia</b>	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.	Gai naiz hizkera arruntean idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko.	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko. Gai naiz artikulatu espezializatuak eta argibide tekniko luzeak irakurtzeko, nire eremukoak ez badira ere.	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulatu espezializatuak edo literatura-lanak.



<b>Ahozko elkarreragina</b>	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeko, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburrak egiteko.	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaiara batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak...).	Gai naiz jatorrizko hitzun batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritzia azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte-edo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen. Badakit neure ideia eta iritzia zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebeziaz lotzen.	Gai naiz ahalegin handirik egin gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
<b>Ahozko adierazpena</b>	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak. Gai naiz nire iritzi edo proiektuen arazoak eta azalpenak laburki emateko. Badakit istorioak kontatzen, liburuen eta filmen argumentuak azaltzen eta horiek nigan sortutako erreakzioa adierazten.	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz. Gai naiz gaur eguneko gorabeheren gainean nire ikuspuntua adierazteko, aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz.	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrek erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.

<p><b>Idatzizko adierazpena</b></p>	<p>Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako oporretakoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.</p>	<p>Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.</p>	<p>Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.</p>	<p>Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen diedan garrantzia nabarmenduz.</p>	<p>Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.</p>	<p>Gai naiz testu argiak jariozuez idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulua konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-lanak idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.</p>
-------------------------------------	--	--	---	---	--	---

## HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA

### Nire lehen portfolioa


#### I. GEHIGARRIA

##### ERREFERENTZIA MAILA BATERATUA:

Autoebaluazio-taula

DESKRIBATZAILE TAULAK:

A<sub>1</sub> eta A<sub>2</sub> erreferentzia mailak




# Trebetasuna: Entzun

Lasai nago, egoera ezagun batean; badakit nire eginbeharra zein den, baita nolako bilakaera izango duen ere. Ezagutzen dudan pertsona heldu bat ari bazait hizketan begietara begira, intonazio oso markatuaz eta espero dudanetik gertu dagoen hizkera batean, hitz eta esaldi errazak erabiliz, tonu eta keinu argien bidez eta bat badator ikusten dudanarekin edo egiten dudan jarduerarekin edo nire jokabidearen ezaugarriekin,

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Egunaren hasera eta bukaerako mugimendu eta jarduera ohikoekin lotutako agindu errazak ulertu: jaiki, oheratu, begiak ireki eta itxi, nagiak atera, etab.
- Zenbait hitz garrantzitsu ulertu eta gainontzekoa irudikatu, eguna eta gauarekin zerikusia duten hitz eta esaera ohikoenak ulertu: "eguzkia/eguna, ilargia eta izarrak/gaua", eta ezagutu gure kulturako zenbait erritual ekintza.




- Ulertu eta egin keinu bidez gorputzaren garbitasunerako zenbait ekintza egoki: eskuak edo aurpegia garbitu, hortzak garbitu, orraztu, dutxatu edo bainua hartu, sudurrari zintz egin, etab.



- Erabiltzen ditudan jantzirik eta oinetakorik arruntenak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak ezagutu: zapatak, zapatilak, kamiseta, alkandora, berokia, jertsea, galtzerdiak, txandala, etab.
- Esaldi ezagun batean hitz ezagunen bat atzeman hainbat hotsen artean.




- Ulertu eta ezagutu noiz aipatzen den leku hau eta bertan egiten diren ohiko jarduerak: bazkaria prestatu, jan...
- Hizkuntza honetan zenbait elikagai eta haien izena identifikatu.



**Ikastetxean,**

**Gai naiz honako hauek egiteko:**



- Ongietorriari eta agurrei irribarrearekin edo beste keinuren batekin erantzun.
- Ikasgelan barrena mugitzeko oinarritzko instrukzioak ulertu: nire jantziak eskegi, nire eserlekuan eseri, etab.



- Ikasgelako objektu arrunt batzuen izenak ezagutu; besteak beste, aukiak, mahaia, margoak, plastilina eta blokeak; baita horiekin egiten ditugun ekintzak ere.
- Ikasgela txukun edukitzeko ematen dizkidan instrukzio garrantzitsuenak ulertu: "kaxa bat ireki eta itxi, barruan diren objektuak hautatu, aipatzen dizkidanak hartu, mahaia antolatu, etab."



- Ikastetxeko eta ikasgelako zenbait toki izenez ezagutu: ataria, gela, moketa, jolasgunea, etab.
- Jakin zer jardura egiten diren leku horietan: gimnasioan, liburutegian...





- Nire gorputzeko atalak izendatzen dituzten hitzak ulertu: burua, lepoa, gorputza, hankak, besoak, eskuak, begiak, ahoa, sudurra, hatzak, etab.
- Ezaugarriak oinarritzkoenak ulertu: tamaina, mugimendua, gogortasuna, malgutasuna, etab.



- Ekintzetan oinarritutako narrazio laburrak jarraitu, ezagutzen ditudan pertsonaiak antzetzten badituzte.
- Zenbait pertsonaia-estereotipo bereizi —ongia eta gaizkia nork irudikatzen dituen— eta batzuek eta besteek zer egingo duten igarri.



- Nire adinerako egoki diren kantu herrikoiek edo ezagunek aipatzen dutena keinuz eta gorputz-mugimenduarekin identifikatu eta jarraitu.
- Doinuak ezartzen dituen erritmo-aldaketetara egokitu eta ikasgelakoekin koreografia adostua aurrera eraman.



- Zenbait gunetan egin ditzakedan mugimenduen agindu errazak ulertu eta jarraitu: salto egin, lasterka egin, pilota bota, etab.
- Jarduera horietan erabiltzen ditudan zenbait tresna eta dagokien hitza lotu: soka, bolak, pilota, etab.



- Film bateko eszenak edo telebista-saio bateko zatiak jarraitu.
- Ideia orokorra jaso eta ikusitakoa gogoratu hurrengo egunean.



- Agur esateko zenbait formula ulertu eta erabili.
- Irteera-ohitura zenbait ezagutu eta jarraitu: berokia edo jaka jantzi, nire gauzak jaso, agur esan.

Nire adineko neska-mutilekin **jolasten** naiz, ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo.


### Gai naiz...



- Pertsona nagusi batek laguntzen badit, talde-jolas erritmikoetan sartu: korroan, pilotan, sokasaltoan...
- Jolasaren kantu, errima edo leloak jarraitu. Esaten dutena oso ondo ulertzen ez dudanean, besteek egiten dutena egiten dut.
- Jolas herrikoi batzuen izena eta kantua ezagutu.



- Besteek agindutakoa betebeharreko ekintza-jolasetan parte hartu: ezkutaketan, harrapaketan, etab.
- Jolasean erabiltzen dugun kantuaren edo leloaren doinua errepikatu edo ahopekatu. Ondo oroitzen ez badut, isildu, eta berriz hasiko naiz.



Nire inguruko hizkuntza eta kulturak.


### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Nire inguruko leku eta zerbitzu batzuen izena ezagutu: "suhiltzaileen etxea, auzoa, igerilekua, kalea, ikastetxea, erietxea, zinema, denda, museoa". Badakit oro har haietan zer aurkitu.
- Denda mota batzuk bereizi eta haietako bakoitzean eros daitezkeen zenbait gauza zehaztu —zineman: filmeak; zoonan: ezohiko animaliak; etab.—.
- Ezagutu eta erabili zenbait hitz, tonu eta keinu, hainbat gauza izendatzeko, eskatzeko edo haiengatik galdetzeko.



- Elkarrizketa batean ezagutzen ditudan lekuak dituzten hizpide igarri: ikastetxea, etxea, ataria, erietxea, denda...
- Toki ezagunetan alde batetik bestera mugitzeko ematen dizkidaten zenbait ohar ulertu eta jarraitu: "mantso ibili!", "geratu!", "kontuz!", edo "aurrera begiratu". Gainera, mezua esaten duenaren keinu eta mugimenduen laguntza izaten dut hobeto ulertzeko.
- Inguruko zenbait hots eta zarata ezagutu eta beste hizkuntzetan zer hots duten ezagutu, baita objektu eta egoerei lotu ere: sirena/suhiltzaileen autoa, autobusa, kamioiak, semaforo-hotsa, etab.
- Ibiltzea eragiten duten kantuak ezagutu eta haien erritmoa jarraitu.



## Trebetasuna: Hitz egin

Hitz egitean ingurukoek esaten dutenean oinarritu behar badut ere, ahoskatzeko arazoak baditut ere, eta hitzak eta esaldiak esan baino gehiago ahopekatzen baditut ere, edo isildu eta behin eta berriz hasi behar izaten badut ere,

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Ohiko diosalak eta dagozkien keinuak erabiliz agurtu.
- Agurtzeko une egokia igarri.
- Zorionak eman ingurukoei esaera eta keinuen bidez, bai beren urtebetetzean, bai urteko egun berezietan, nire kulturari ospatzen direla baitakit.



- Kantu eta lelo errazak dituzten txalo eta psikomotrizitate fineko jolasak egin. Proposatutako erritmoa jarraitu, hitzak esan edo errima zatiren bat ahopekatu.
- Unearekin lotutako errima edo aho-korapiloren bat esan.
- Kantu baten hainbat erritmotara moldatu.



- Asmakizun-jolasa segi, eta entzun berri ditudan zenbait hitzen artean aukeratuko bat esanez parte hartu.
- Keinuak egin eta hotsak atera, animalia edo gauzak adierazteko, ikasgelakoentzat ezagunak diren moldeak erabiliz.



- Nire trebezia batzuk eta egiten ditudan jardueretako batzuk aipatu: ibili, salto egin, burua mugitu, txalo egin...
- Nola egiten dudana esan: mantso ibiltzen naiz, oso gora egiten dut jauzi, alde batetik bestera mugitzen dut burua, txalo azkar egiten dut...




- Istorio bat jarraitu eta pertsonaia baten papera egin, testuak dioena keinuen eta mugimenduen bidez jokatu; gainera, zenbait esaldi edo hitz errepikatzen ditut aurretik entzunez gero.
- Ipuinetako zenbait esaera ezagutu eta errepikatu guztiok batera: "Behin bazen...".
- Ezagutzen ditudan herri-ipuinetako pertsonaiaren batzuk beren izenez izendatu eta ipuin horietako esaera bereziren bat aipatu.
- Guztiok aho batez esan lelo motzen bat, eta horrelako jarduerekin gozatu.



- Nire inguruan ikusten dudana deskribatzen duten hitz batzuk ekoitzi: lekuak, objektuak eta pertsonen izenak.
- Egiten dituzten jardueren batzuk izendatu.
- Jarduera egin duten edo egiten ari diren uneari buruzko informazioa eman, beti ere informazioa heldu batek ematen badu.






## Trebetasuna: Elkarrizketan aritu

Egoera ezagun eta lasai batean, jarduera ezaguna eta denon artean egitekoa bada, beste pertsona bat aurrean badago begira eta esandakoa errepikatzeko prest,

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Jolas batean objektuak aukeratu aurretik elkarrizketa bat izan.
- Askoren artean objektu bat aukeratu, hitza edo ezaugarriren bat (hotsa, kolorea, etab) aipatzen didatenean.
- Hitzari zalantza-doinua ere eman diezaioket.




- Elkarrizketa batean parte hartu eta besteak esango didana aurreratu, egiten ari garen jarduera komun baten ingurukoa bada.
- Norbaiti zerbait eskatu eta eskaera bati keinuz edo hitzez erantzun.
- Eskerrak eman eta adeitasun-esaldi bati erantzun.



- Objektuen eskuztatze-jardueretan agindu errazak eman, adostasunera heltzeko; adibidez, buru-hausgarri bat egiterakoan, jolas batekin eraikitzerakoan, etab.
- Adeitasun-esamolde batzuk erabili eta ezagutu.




- Begiraden edo keinuen bidez elkarrizketa bat hasi edo eten; begi-keinuen bidez ere elkarrizketari eutsi diezaioket.
- Jatekoa eskatu, elikagairen bat aukeratu eta nire apetak adierazi hitzen edo keinuen bidez.
- Elkarlanean errezeta erraz bat egin. Badakit osagarriak eskatzen eta zein pauso jarraitu behar diren adierazten.




# Trebetasuna: Irakurri

Irakurtzen dudanean, testutzat hartuz bai irudiak bai hitz idatziak edota biak nahasten dituztenak,


## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Ukimenaren bidez objektuak, pertsonaiak edo animaliak ezagutu.
- Objektuak, pertsonak edo era askotako pertsonaiak lotu beren errepresentazio grafikoeekin: argazkiak, marrazkiak, jostailuak, etab.



- Irudi berdinak edota irudiak eta testuak gogoratu beharreko memoria-jolasak egin.
- Hotsa eta irudia identifikatzeko multimedia euskarria duten programak erabili.




- Ordenagailuan jolas egiteko beharrezko diren zenbait ikur eta ikono ezagutu.
- Idatzitako zenbait hitz identifikatu bere formagatik: nire izena, ezagutzen ditudan pertsonaien izenak, jolasen eta ipuinen izenburuak, etab.
- Marrazkien edo ikurren bidez, agindu eta instrukzio errazak ulertu.



- Mahai-jolasetako fitxen, taulen eta karten informazioa jaso eta arauak jarraitu.
- Erabiltzen diren fitxak edo kartak hartuta, asmatu nola jolasten den jolas batean.
- Margo- eta zenbaki-kodeetan oinarritutako zenbait rol-jokotako informazioa irakurri.




- Marrazkiei begiratuta istorio bat jarraitu norbaitek kontatzen duen bitartean, edo kasete edo CD batean entzun ahala, bakarka zein taldean.
- Kontakizuna ezagutu marrazkiak ikusi hutsarekin edo irudikatzen dudanean oinarrituta, eta irudikatu/asmatu zer gertatuko den ondoren.



# Trebetasuna: Idatzi

Idaztean, marrazkiak erabiltzen baditut ere,

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Ikusten dudan edo gertatu den zerbait irudikatu, gero gogoratu ahal izateko.
- Gertakariak gogora ekarri, marrazkiak edo grafiak erabilia, eta bi bitarteko horiek erabili ulertarazteko.



- Istorio edo sekuentzia bat egituratu irudi sorta nahaspilatu batetik abiatuta.
- Istorio berriak asmatu marrazkiak beste modu batzuetara jarrita.




- Eranskailuak erabilia testua osatu, eta ondoren: kontatu, deskribatu edo informazio laburrak eman gauzen inguruan.



- Kolore-, zenbaki- eta hitz-kodeak erabilia, deskribatu, informazioa jaso eta irudikatu gero kontsultatzeko moduan.
- Idatzi nire izena, helbidea, telefonoa eta baita ikaskide, lagun eta pertsonaia gustukoek izenak ere.



- Koloreztatu marrazkiak eta zorion-agurrak emateko txartelak osatu, eta haiekin nire lagunei zorionak opa.
- Zorionak emateko erabiltzen diren ohiko hitz eta esamoldeak idatzi.




# Trebetasuna: Entzun

Lasai nago, egoera ezagun batean; badakit nire eginbeharra zein den, baita nolako bilakaera izango duen ere. Ezagutzen dudan pertsona heldu bat ari bazait hizketan, begietara begira, intonazio oso markatuaz, hizkera errazaz, tonu eta keinu argien bidez, egoerari lotutako mugimenduak eginez eta behar bezainbeste errepikatzen badu,

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Egunarekin eta gauarekin lotutako ohitura eta jarduera ezagunen sekuentziak ulertu: oheratu, altxa, nagiak atera, etab. mugimendu eta keinuz lagunduta egin.
- Jarduera andana bat iragarri eta ordena-aldaketei antzeman.
- Jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen rolak hartu: simulazio-jolas baten barruan amarena, aitonaarena, aitaarena, umearena...




- Gorputzaren garbitasunerako egin beharreko ekintzen inguruko aginduak ulertu eta bete: eskuak eta aurpegia garbitu, hortzak garbitu, orraztu, dutxatu edo bainua hartu, sudurrari zintz egin, etab.
- Aipatutako jarduera zein gorputz-atalekin dagoen lotuta esan eta tresna erabilienak izendatzeko hitzak ezagutu: orrazia, eskuoihala, xaboaia, ura, iturria...



- Jantziak eta oinetakoak izendatzeko hitzak ulertu eta ezagutu, baita haiei lotutako jarduera ohikoenak adierazi ere: oinetakoak eta berokia jantzi, maukak sartu, kremlera igo, zapatak lotu, etab.
- Elementu horiek lotu dagokion gorputz-atalarekin.



- Janaria prestatzean sortzen diren egoerei lotutako hitzak eta esaerak ulertu, baita sukaldeko zenbait tresnaren izenak ere: platerak, sardexkak, labana, koilara, etab.
- Janariarekin lotutako oinarritzko ekintzak ulertu: mahaia jarri, ahoa itxita murtxikatu, zatitu, murtxikatu, irentsi, etab.




**Ikastetxean,**

**Gai naiz honako hauek egiteko:**




- Ulertu eta ezagutu sarrera- eta irteera-ohitura ohikoenak.
- Ikasgelan jokabidea arautzeko ematen dizkidaten aginduak ezagutu eta jarraitu, baita fisikoki ere: sarrera-agurra eta joan aurreko agurra eman, nire lekuan jarri, materialak aurkitu, erabili ondoren jaso eta txoko batetik bestera mugitu.
- Baimena eskatu ikasgelatik ateratzeko eta sartzeko, komunera joateko, lekuz aldatzeko, zintz egiteko...



- Ikasgelan eta atarian egiten ditudan jarduera fisikoekin lotuta dauden instrukzio argiak jarraitu: jauzi egin, lasterka egin, baloia edo soka erabili, igo, jaitsi, bira eman, etab.
- Zerbait ongi ulertzen ez badut, badakit besteek egiten dutena ikusita agindua zein izan den egiaztatu ahal izango dudala edo harridura-keinuak eginda adierazi ahal izango dudala ulertu ezina.






- Zenbait haur-kantaren erritmoa atzeman eta jarraitu eta letrak esaten duena keinuz eta mugimenduz adierazi.
- Identifikatu behin eta berriz errepikatzen diren zatiak eta jarduera-aldaketa adierazten duten gako-hitzak.
- Gainera, heldu baten laguntzaz ikaskideekin ados jar naiteke mugimendu berberak egiteko.
- Gozatu jarduera erritmikoak entzunez eta eginez eta errespetatu besteen lekua.



- Telebista-saio bat edo bideo bat ikusten dudanean, ulertzen ditut marrazki bizidunetako istorio laburrak edo esketxak, beti ere pertsonaiak ezagunak badira eta irudien laguntza badut. Gainera, pertsonaien keinuei eta mugimenduei erreparatuta, badakit zer gertatzen den.
- Testu deskriptiboak ere ulertzen ditut, gai ezagun baten inguruak eta nire interesekoak badira; esate baterako, dokumental motzak badira.
- Istorioko pertsonaia eta gertakizun nagusiak ezagutu, zer gertatuko den irudikatu eta ikusi dudanaren zantzu nagusiak laburtu nire ama-hizkuntzan.



- Zuzenean kontatutako edo antzeztutako istorio baten ideia orokorra jaso, txotxongiloen mugimenduei eta ahots-aldaketei eta ekintzei esker. Zenbait ipuinetako pertsonaiak —maitagarriak, ipotxak...— ezagutu eta izendatu; horrek laguntzen dit horietakoren bat ateratzen denean zer gerta daitekeen aurreikusten.
- Isilik jarraitu eta gozatu kontakizun bat, ulertzen dudala edo galdu egin naizela adierazteko konbentziozko keinuak erabili eta beharrezko argibideak edo errepikapenak eskatu.




- Nire gorputzari buruzko oinarritzko informazioak ulertu: luzera, pisua, gorputzaren egitura, barruko zenbait organo; pertsonen eta animalien arteko konparazioei dagozkienak: zangoak ala hankak, errapea ala bularrak...; mekanismoen funtzionamendua: metroaren edo kronometroaren erabilera...; edo nire inguruaren deskripzioa: hiria, mendia, landa, landareak..., beti ere informazioa ariketa fisikoan —eskuztatzean— eta ikasgelako esperientzia zuzenean oinarrituta badago.
- Nire gorputza eta berarekin egiten ditudan ekintzak deskribatzen dituzten hitz eta esaldi batzuk ulertu: ibili, lasterka egin, arnasa hartu, etab. Baita objektuen ezaugarriak ere: indartsua, gogorra, biguna eta hauek espazioan kokatzea: barruan, kanpoan, gainean...
- Ulertu mugimenduzko jarduerak egiteko ematen zaizkidan instrukzioak: jauzi egin, lasterka egin, zilipurdi egin, tenkatu, etab.
- Erabiltzen ditudan objektuak izendatzen dituzten hitz batzuk ezagutu: koltxoneta, kronometroa, zinta, etab.
- Nire hanka-sartzeak zuzendu besteek egiten dutenarekin konparatu ondoren.

### Nire inguruko hizkuntzak eta kulturak.

#### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Bere izenarekin izendatu lekuak, objektuak eta inguruko gertakariak eta beren artean lotu: negua, uda, udaberria, hotza/beroa, argia/itzala, euria/putzuak, zuhaitzak/landareak; hiria/landa, baserria/basoa, etxe-abereak/ piztiak/ zirkoa, etab. Eta haiek ezagutu eta aurkitzeko interesa adierazi.
- Egoera berezietan egiten ditudan jarduera batzuk izendatu: salto egin, adar batetik zintzilikatu edo kulunkatu, etab.
- Keinu eta mugimenduen laguntzaz adierazten bazaizkit, alde batetik bestera nola joan adierazten didaten zenbait agindu ulertu eta jarraitu: aurretik joan edo norbait jarraitu, okertu, makurtu, igo, jaitsi...
- Ezagutu inguruko zenbait hots eta zarata eta zenbait zeinuren esanahia: semaforoa, oinezkoak pasatzeko edo geldi egoteko keinuak, etab.
- Bere izenez aipatu: aurkitzen ditudan lekuak, objektuak eta pertsonak, baita lanbiderik ohikoenak ere.
- Ibilaldi eta txangoetarako kanta eta lelo batzuen erritmoa ezagutu eta jarraitu.
- Ezagutu nire hiri edo herriko lekuri ibilienak: dendak, merkataritzaguneak, museoak edo aisialdiko zentroak. Eta atzeman zer alde dagoen beste herrialde batzuetakoekin, irudietatik bakarrik ezagutzen badituz ere.
- Bereizi denda mota batzuk eta bertan erosten diren produktuak: fruta-denda —patatak, uraza, fruta—, etab.
- Bertan egiten diren jardueretan hitz, keinu eta esaldi erabilgarriak ezagutu eta erabili: "txiklea" "ogitartekoa" -"Zenbat da?".



Antzeko adineko hurrekin **Jolasten naiz** —atarian, kalean, ikastetxe barruan zein kanpoan—.


### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Jolastu eta gozatu korro-jolas erritmikoetan, kanten, errimen eta leloen laguntzaz.
- Herri-jolas batzuei dagozkien kantak edo leloak entzunda, izenez identifikatu eta dagozkien kulturarekin lotu.



- Kantetan, errimetan edo objektuetan oinarritutako zenbait erritmo- edo mugimendu-jolasetan parte hartu, taldean eta besteen laguntzarekin: ezkutaketan, harrapaketan, pilotan..., eta den-dena ulertzen ez badut ere, asmatzen dut zer egin behar dudan.
- Jarraitu herri-jolasekin lotutako zenbait lelo; esate baterako, tinter-tanter eta, saltoka-saltoka. Jolastu bitartean, ahopekatu.



## Trebetasuna: Hitz egin

Hitz egitean, ingurukoek diotenean oinarrituz, ahoskatze-arazoak badituz ere, eta hitzak eta esaldiak esan baino gehiago ahopeakatzen badituz ere, edo geratu eta behin eta berriz hasi behar izaten badituz ere,

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Eguneko zer memento den eta nola nagoen, agurtu: egun on, arratsalde on, kaixo, etab.
- Elkarrizketa bat hasteko eta bukatzeko ohiturazko esaera ohikoenak erabili.
- Norbaiten urtebetetzean zorionak eman edo data jakinetan esamolde jakin batzuk esan.



- Kanta edo lelo errazak dituzten pilota, sokasalto edo txalo-jolasetan aritu eta hitzak egin beharreko mugimenduekin lotu.
- Jarraitu eta ahopeakatu zenbait ohiko errima, lelo, aho-korapilo.
- Nire bikotekidearekin edo taldearekin koordinatzeko denbora aldatu.
- Pertsona heldu batek laguntzen badit, denbora azkartu edo mantsotzen dut jolasak eskatzen didanaren arabera.




- Asmakizunetan aritu eta hitza edo hitzak hautatu.
- Uler nazaten, oso ongi ahoskatzeko gai ez banaiz ere.
- Keinuak eta mugimenduak erabiliz hobeto adieraztea lortu eta nire txanda eta besteena errespetatu.



- Nire gorputzarekin egiten dakidana deskribatu eta egin —hitzak elkartu, eskuak lotu, toki batetik jauzi egin, begiak mugitu edo kliskatu, etab.—.
- Neure buruaren oinarritzko deskribapena egin eta hitzak aukeratu nire familiarztekoak eta lagunak deskribatzeko.
- Modu laburrean azaldu egunero egiten ditudan zenbait jarduera.




- Hitz bakarreko edo bi hitzeko testuren bat esan dramatizazio batean, eta horrela elkarlanean lantxo bat jokatu. Keinuen eta mugimenduen laguntzaz pertsonaia antzeztu.
- Eszenatokira sartzeko eta handik ateratzeko unea adierazten didatenean, antzeman.
- Ipuinen hasiera eta bukaerako esaldi egin batzuk ezagutu eta errepikatu: "Pertsonaia halakoa zen..." "Bazen behin..." "...eta bizi zen oso, oso..." "Hau horrela bazen...". Ezagutzen dituzten esaldi batzuk errepika ditzaket.
- Denak batera errima motz bat edo aho-korapilo errazen bat esan, eta jarduera horrekin gozatu.



- Deskribatzen dituzten ikusten ditudan lekuetako, inguruan ditudan pertsonen eta izakien eta egiten dituzten jardueren inguruko oinarritzko kontuak.
- Denboran zehar lotuta dauden ekintza sorta bat antzeztu, egunero egiten dudana azaltzeko, baldin eta pertsona heldu baten laguntza badut.






## Trebetasuna: Elkarrizketan aritu

Elkarrizketa bat izaten dudanean, egoera ezaguna eta lasaia bada, nirekin ari den pertsona aurrez aurre badut, begiratzen badit eta esandakoa errepikatzeko prest badago, eta egoera horretan zein den nire eginbeharra garbi badaukat,

### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Elkarrizketa batean parte hartu —benetako edo irudikatutako jolas-egoeran—, aldez aurretik pertsona horrek esango didana espero izatekoa bada eta jarduerekin lotua.
- Zerbait eskatu norbaiti eta eskari bati keinuen edo hitzen bidez erantzun.
- Deskripzio batean oinarrituta, objektu bat identifikatu.
- Eskerrak eman eta esaldi adeitsu bati erantzun.



- Begiradarekin edo keinuekin elkarrizketa bat hasi, jarraipena eman eta moztu. Gainera, nire begiradekin eta aurpegiko keinuekin atsegina eta desatsegina zaidala adierazi.
- Eskatu eta eskaini jateko zerbait, benetako edo jolas-itxurako egoera batean.
- Gustuei buruz galdetu eta norberaren gurariak zeintzuk diren adierazi.
- Jarraitu janari-errezeta bat egiteko ematen dizkidaten aginduak; zerbait ulertzen ez dudanean, zalantza adierazi edo keinuen eta soinuen bidez ulertu dudala egiaztatatu.




- Taldean jolastu eta objektuak erabiliz jarduera bat egin —eraikuntza-jokoak, jostailu bat osatu, koadro bat margotu—, keinuen laguntzaz eta objektuak eskuztatuz.
- Oinarritzko instrukzioak eman: emadazu gorria, jarri gainean berdea, etab. Atzera bota edo onartu hitzez edo buruaren mugimendu batez.
- Truke errazetan ezagutu eta erabili hotsak eta hitzen ordezeko onomatopeiak.
- Onespina edo gaitzespena adierazi edo nire ideia zein den adierazi, keinuak eta hotsak erabiliz.




# Trebetasuna: Irakurri

Irakurtzen dudanean, testuz hartzen ditut bai irudiak eta bai hitz idatziak, edo biak nahasten dituztenak.

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Memoria-jolasetan oinarritutako elementu grafikoak identifikatu.
- Hainbat objektu eta bere idatzizko irudikapena lotu.



- Ordenagailu-joko bat hasteko beharrezko diren ikur-bidezko informazioa identifikatu, ahalmenak aztertu eta esanahiak ondorioztatu.
- Marrazkien edo ikurren bidezko aginduak edo instrukzio errazak ulertu.
- Web-helbide gustuko bateko orrialdeak ezagutu eta jolas bat egiteko edo zalantzaren bat argitzeko beharrezkoa dudan oinarritzko informazioa jaso.
- Irudi, zenbaki eta hitzez osatutako informazio-testu errazetatik informazioa atera.



- Elkartu marrazkiak eta hitzak edo esaldiak, eta idatzizko informazioa elkartu ikur-irudikapenarekin.
- Haiekin antola ditzakedan testuetan, esanahi-aldaketei antzemateko idazketa erabili.



- Kontakizuna ulertu, CD edo zinta bateko grabazioa lagun dudala.
- Orrialdea noiz pasa behar dudan adierazten didaten hotsak ulertu.
- Irudiak erabili esanahia ondorioztatzeko.
- Aurretik entzun dudan kontakizun edo ipuin bat modu isilean eta irudien laguntzarekin irakurri.
- Ezagutzen ditudan hitz eta esaera batzuk identifikatu ohiko testuetatik kanpo ikusitakoan.



- Ezagutzen dudan liburu bat gainbegiratu eta istorioa gogoratu marrazkien eta hitzen bidez.
- Ozenki irakurri idatzita ikusten ditudan zenbait esaldi.
- Ikaskideekin elkarlanean informazioa biltzeko jolasak egin; esate baterako, aldizkari batean bilatu ordenagailu-joko bateko probari nola aurre egin, pertsonaia baten bilakaera maila egiaztatu, etab.



# Trebetasuna: Idatzi

Idaztean, maiz akatsak egiten badituz ere eta marrazkien laguntza behar izaten baduz ere...

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Marrazkiak erabili ikusi dudak, gertatu zaidan edo gustuko dudak zer bait gogoratzeko.
- Bizi izandako esperientziak eta ezagutzen ditudan istorioak kontatzeko irudietan oinarritu, eta lagun eta familiartekoekin horretaz jardun.



- Kontakizun bihurtu irudietan oinarritutako sekuentzia bat.




- Marrazki eta argazkietan izenak, datak eta orduak idatziz, antolatu eta osatu irudi sail bat.
- Horma-irudiak egin ikasitakoa antolatzeke eta besteei erakusteko.



- Informazio-orriak bete, izena, zenbakiak edo kolore-kode bat erabiliz.
- Nire sentimenduak adierazi edo gertakizunen bat kontatu marrazkien laguntzaz.
- Testu idatziak abiapuntutzat hartuta, korapilatsugo bat idatzi, beti ere pertsona heldu baten laguntza baduz.



- Bilatu eta kopiatu helbide elektronikoak eta marraztu eta koloreztatu zorian-txartelak, eta ondo doakien esaldi bana idatzi, zerrendatuta dauzkadan artek aukeratu ondoren.
- Norberaren esperientzian oinarritutako istorio edo kontakizun bat idatzi, esaldiak kopiatu eta marrazkiak eginez osatu.
- Jolasetarako karta, fitxa edo taulak egin taldean eta testu horietako informazioari lotu.





# Trebetasuna: Entzun

Lasai nago, egoera ezagun batean, eta nire eginbeharra zein den eta nola egin behar den argi daukat. Ezagutzen dudan pertsona heldu bat begietara begira ari bazait hizketan mantso, intonazio oso markatuaz eta hizkera errazaz, keinuen, irudien eta mugimenduen bidez egoera ulergarriagoa egiten badit eta behar bezainbestetan errepikatzeko prest badago,

## Gai naiz honako hauek egiteko:


- Oheratu eta jaikitzeke uneei lotutako ohiturei dagozkien formula eta aginduak ulertu; besteak beste, oheratu, tapakiaz estali, ipuin bat kontatu, errezoak edo leloak errepikatu eta argia itzali. Keinuen eta mugimenduen bidez erantzuten diet aginduei.
- Egoera horietan parte hartzen duten pertsonak eta eginkizunak lotu; besteak beste, aita, ama, amona, aitona, ahizpa, anaia, neba edo arreba. Jakin zer ohiko mugimendu egiten dituzten eta gidoi ezagun bati lotutako beste paper bat jokatu simulazio edo jolas batean.
- Ezagutu honelako hitz batzuk: "eguna, gaua, eguzkia, ilargia, argia, iluntasuna", eta lotu elkarren artean eta egia eta irudikapena bereiziz.
- Gorputzaren garbitasunarekin lotutako eginbeharren inguruko aginduak ulertu eta jarraitu: eskuak eta aurpegia garbitu, hortzak garbitu, orraztu, bainua edo dutxa hartu, sudurrari zintz egin, etab.
- Jarduera berezi bati buruz noiz ari garen ulertu "belarriak garbitu", eta gorputzeko hainbat zati berezi ezagutzen ditut: ilea, sudurra, bekainak, belauak, hatzak, behatzak, azazkalak, hortzak, haginak, etab.
- Tresna erabilienak noiz izendatzen diren asmatu: hortzetako eskuila, eskuzapia, iturria, musuzapia eta haiekin lotutako soinu eta ekintzak: orraztu, iturria ireki eta itxi, tantaka aritu, zipriztindu, etab.
- Jantziak eta oinetakoak jantzeko eta eransteke ekintzak eta hurrenkera jarraitu: lehenik, galtzerdiak jantzi; gero, zapatak eta ondoren, lotu, etab.
- Mugimenduzko jarduera korapilatsuen sekuentziak ezagutu eta egin: lotu eta igo kremlera, kapela, eskularruak edo eskuzorroak jantzi, zapatak, berokia edo alkandora lotu.
- Asmatu zer jantzi den deskripzioa entzun ahala: kolorea, forma eta janzten dugun gorputz-atala.
- Sukaldeko jarduerak adierazteko erabiltzen diren hitz eta esaldiak ezagutu: moztu, nahastu, gehitu, irabiatu, etab.
- Ezagutu eta bereizi noiz ari garen elikagai eraldatuez: arrautzopilaz, xigorkiaz, pastelaz edo paellaz. Noiz oinarritzko osagarriez: ogiaz, arrautzez, olioaz, gurinaz edo irinaz. Eta noiz bizigarriez: azukreaz, gatzaz...
- Bereizi zer tresna erabili behar diren haiek prestatzeko eta zein diren eguneko otordu nagusiak.





**Ikastetxean.**

**Gai naiz honako hauek egiteko:**



- Ulertu eta ezagutu sarrera- eta irteera-agurrik ohikoenak, baita une horiekin lotuta dauden erritualak ere: dagokion esekitokian zintzilikatu nire jantziak, nire eserlekua aurkitu, nire materialak atera eta berrantolatu edo alde batetik bestera mugitu irakaslearen esanei jarraituz.
- Agurrei erantzuteko keinu eta mugimenduak erabili eta egiteko eskatu zaidana egin.
- Ikasgelako eta ikastetxeko hainbat lekutara joan, eta eskatu zaidanari erantzungo diote nire mugimenduek (mantso, azkar, isilik...).




- Materiala aukeratu, erabili eta antolatzeko pertsona helduek ematen dizkidaten instrukzioak ulertu eta jarraitu.
- Beste batzuekin elkarlanean aritu, entzundakoari buruzko pistak emanez (keinuz) edo nire hizkuntza propioan zuzendu besteek gaizki entzun dutela uste dudana.



- Ezagutu ikastetxeko guneak, nola deitzen zaien eta bakoitzean aurki dezakedana.
- Gelako txokoetara joateko, irakasleek ematen dizkidaten aginduak ulertu eta jarraitu.
- Ezagutu zenbait objektu bere izenez: plastilina, arkatzak, liburuak, arasa, etab.



- Ikasgelan ikasitako kantu errazak kantatu eta egunaren zenbait tarterekin lotu.
- Kantuak eta errimak dantzatu musikaren erritmoa jarraituz, eta keinuz egin kantuaren letrak adierazten duena.
- Keinuz laguntza eta informazioa eskatu, ahozko adierazpenik erabili gabe.




- Jarduera fisikoetan oinarritutako klase-emankizun baten zatiak jarraitzeko adina ulertu: ariketa fisiko edo kirol-praktiketan, jarduera plastikoren batean edo musika-adierazpenean oinarritutakoetan.
- Keinuak eta hotsak adierazteko erabili interesa, nekea, nahasmena...



- Oro har, ulertu bideo- edo telebista-saio batean ikusitako istorio erraz baten zantzu nagusiak, istorioa ulergarria bada edo pertsonaia ezagunak badira.
- Gertatuko dena irudikatu eta laguntzarekin gertatutakoaren ildo nagusiak laburtu ama-hizkuntzan edota beste era bateko amaierak aurkitu.



- Nire gorputzaren atalak izendatzeko hitzak ezagutu: burua, besoak, bularraldea, zangoak, etab.
- Ezagutu hezurak, bihotza, biririkak eta zertarako diren jakin.
- Gorputzaren zenbait atal noiz izendatzen diren jakin eta beren funtzioarekin lotu: hazi egiten naiz —neurtu—, nire bihotza entzuten dut —pultsua hartzen dut—, etab.



Nire adineko neska-mutilekin jolasten naiz, ikasgelan zein ikasgelatik kanpo.

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Kantu, errima, lelo eta korru-jolasekin lotuta dauden erritmo-jolasetako arauak ulertu eta jarraitu.
- Jolasaren erritmoa ezartzen duen musika birsortu, hitzek zer dioten oso ondo ulertzen ez badut ere.
- Erritmo-jolasekin lotutako kantu herrikoi batzuk kantatu.



- Jolasaren memento bakoitza zehazten duten arauak, hitzak eta esaldiak ezagutu, baita jolas bakoitzaren mugimenduak eta jardueraren sekuentzia ere (gorde-gordeka, harrapaketa, etab.).
- Ezagutu eta erabili zenbait jolas eta ekintzei lotutako leloak eta adierazpen bereizgarriak.

Nire inguruko hizkuntza eta kulturak

### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Leku batetik bestera joateko zenbait agindu ulertu: ikusten ditudan keinuen eta mugimenduen laguntzaz, zatoz hona, lasterka egizu haraino, zuzen ibili, ezkerretara/eskuinetara makurtu...
- Kalean zehar ibiltzeko oinarrizko zenbait agindu ulertu eta jarraitu: taldean ibili, semaforoari begiratu, eskutik joan, etab.
- Niretzat garrantzitsuak diren lekuak izendatzen dituzten hitzak ezagutu: besteak beste, etxea, ikastetxea, parkea eta autobus-geltokia. Ezagutzen ditut honako hauei dagozkien hotsak ere: bizikleta, autoa, anbulantzia, suhiltzaileen autoa, sirena, etab.
- Zenbait lanbide eta lan horiek egiteko tokiak izendatu.
- Zenbait martxa-kantu eta -lelo ezagutu, eta haien erritmora mugitu.



- Nire inguruko informazioa oro har ulertu: atmosfera gertakariak —hotza, beroa, hodeiak, euria, elurra, haizea—; abereak eta landareak —zuhaitzen eta landareen arteko aldea/ abere handi eta txikiak, haien bizilekuak—. Gehiago jakiteko eta arakatzeko gogoia adierazten dut.
- Egora berezietan egiten ditudan zenbait ekintza ezagutu: zuhaitza katuka igo, jauzi egin, zeharkatu; landare bat landatu, haz dadin ureztatu eta zaindu, zatiak ezagutu eta zertarako den.



- Benetako zerbitzu komun batzuk ezagutu, besteak beste, erietxea, zoota, dendak, supermerkatuak, museoak eta aisialdiko zentroak. Irudietan ikusten ditudanean ere badakit zer diren.
- Bereizi zenbait denda mota eta bakoitzean zer eros daitekeen: okindegian, harategian, fruta-dendan edo gozo-dendan. Zenbait herrialderen arteko aldeak ere atzematen ditut.
- Merkataritza-trukeetako zenbait hitz eta esaldi esanguratsu ezagutu eta zenbait produktu izendatu: "Zer nahi zenuen? Beste ezer ez?", "Ez, eskerrik asko", "Zenbat da?". Oinarrizko erosketetan moldatzen naiz.



## Trebetasuna: Hitz egin

Hitz egiten dudanean edota pertsona heldu bati entzundako hitzak eta esaldiak errepikatzen ditudanean, ahoskatze-arazoak, azentu aldeak, geldiuneak eta duda-mudak gorabehera, eta zenbaitetan hitz eta esaldi batzuen "doinua" bakarrik ekoizten badut ere,

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Eguneko zer memento den eta nola nagoen agurtu, dagokien intonazioa eta keinua erabiliz: egun on, arratsalde on, kaixo, gabon...
- Elkarrizketa bat hasteko eta bukatzeko ohiturazko esaera ohikoenak ezagutu eta erabili.
- Norbaiten urtebetetzean zorionak emateko ohiko esamoldeak erabili eta data jakinetan eta jarduera tradizionaletan beste esamolde erabilgarri batzuk ezagutu.




- Mugimendu-jolasetako abesti eta lelo errazak abestu eta dagozkien mugimenduak egin, eta erritmoa jarraitu: txalo-jolasak, pilota-jolasak, etab.
- Kantuak ahopekatu eta hitz solte batzuk esan, batez ere esaldiaren gako-hitzak eta hitz azpimarragarriak.
- Errima eta kantu batzuk ekoitzi, eta nire jolasa entzuten dudan erritmora egokitu.
- Kultura jakin bateko kantu tradizionalak ezagutu eta jolas jakinekin lotu.



- Irudikatutako animalia edo objektua adierazteko hitz bakarreko asmakizunetara jolastu.
- Keinuak eta mugimenduak erabili hobeto adieraztea lortzeko.
- Asmakizun-jolasetara jolastu, esate baterako, "Ikusi-makusi"ra. Jolasa ulertu eta oinarrizko arauak errespetatu.
- Nire txanda itxoin eta besteena errespetatu.



- Egunero egiten ditudan jarduerak deskribatu, mugimenduen laguntzaz eta zenbait modulatzailerekin —azkar, mantso...— gehituz: sudurra edo belarriak mugitu, bekainak igo edo jaitsi, oinetakoak lotu...
- Pertsonen eta animalien oinarrizko ezaugarri batzuk deskribatu. Bereizten ditut: hanka eta oina, ahoa eta muturra, ilea eta artilea...
- Pertsonaia ezagunen trebetasunak deskribatu.



- Dramatizazio batean betebeharrak motz bat jokatu, eta errepikapenean oinarritutako hitz eta esan motz batzuk ekoitzi, pertsona heldu baten laguntzarekin egindako talde lanean bada.
- Testu jakin bat mugimendu eta keinuz ordezkatu, batez ere ongi gogoratzen ez dudanean.
- Konturatu eszenatokira noiz sartu eta bertatik noiz atera behar duzun.
- Ipuinen hasierako eta bukaerako esaldi egin batzuk ezagutu eta partzialki bada ere, esan: "Bazen behin... bat", "eta hau horrela bazen...". Ipuin tradizionaletako pertsonaia batzuk ezagutzen ditut eta haien izena ere badakit, esate baterako "Txano gorritxo", eta bere esaldietako batzuk esaten ditut: "Amonatxo, amonatxo, zein begi handiak dituzun!".
- Errima motz edo aho-korapilo errazak errezipitatu eta jarduera horiekin gozatu.




- Ezagutzen ditudan edo irudietan eta argazkietan ikusten ditudan gune eta lekuak modu erraz batean deskribatzeko hitz batzuk erabili.
- Aditzondoekin lotu hitzak eta esaldiak "atzo, gaur, bihar, lehen"; honela, gertakizun-sekuentzia bat adieraz dezaket.



- Aurrean ez daukadan norbaitek egindako galderei erantzun, istorio baten atalak grabatu, edo zerbait deskribatu (irteera bat), beti ere aurretik prestatuta badut eta pertsona heldu batek laguntzen badit.
- Informazioa argitzeko gako-hitzei indar gehiago eman.





## Trebetasuna: Elkarrizketan aritu

Egoera ezagun eta lasai batean elkarrizketa bat izaten dudanean, nirekin ari den pertsona aurrez aurre badut begietara begira eta esandakoa errepikatzeko prest badago, eta bere laguntzaz gain, testuinguruak eskaintzen didana eta inguruko pertsona helduek ematen didatena badut,

### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Elkarrizketa bat hasi, jarraipena eta amaiera eman, keinuen eta begiraden bidez; adeitasun-esapide batzuk erabiltzen ere badakit.
- Informazio-truke motzak egin honako hauetan, betiere irakaslearen laguntzarekin: nire apetak, ohiturak, familia eta lagunartea, jaten dudana...
- Gai baten inguruan informatzeko entzuten ditudan hitzak eta esaerak errepikatu.
- Keinu egokien laguntzarekin norbaiti zerbait eskaini, eta beste pertsona batzuk gonbidatu edo haien gonbidapena onartu.



- Gauzak eskatu: "mokoa edo pikotxa, faborez"...; eta onartu edo gaitzetsi eskaintza bat: "ez, hori ez...".
- Entzundakoa egiaztatu: "mokoa?".
- Adeitasun-esapide batzuk erabili: faborez, eskerrik asko, barkatu, etab.




- Eraikuntza-jolasetan parte hartu, horma-irudiak edo marrazkiak egin agindu errazak emanaz: "pasa iezadazu gorria, jarri urdina gainean...".
- Hitz bat gogoratzen ez dudanean, ordezkatu hotsekin edo onomatopeiekin.
- Keinuak, hotsak eta zenbait adeitasun-esapide erabiliz, adostasuna edo desadostasuna adierazi, barkamena eskatu...



# Trebetasuna: Irakurri

Irakurtzen dudanean, testutzat hartzen dut bai irudiek diotena bai idatziz dagoena.


## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Ordenagailu-joko bat hasteko beharrezkoa dudan informazioa identifikatu, ezagutzen ditudan ikurren eta entzuten dudan informazioaren laguntzaz.
- Irudietan oinarritutako agindu eta argibide errazak ulertu.
- Irakurri eta ulertu ikurrik ohikoenak: gelditu, atzera egin, aurrera egin, erantzun, entzun, etab.
- Zorion-txartelen esanahia ezagutu eta ulertu; badakit egoera bakoitzari lotutako txartelak badirela eta bakoitza dagokion egoerarekin lotzen dut.



- Idatzita dauden hitz solteei zentzua eman, marrazki-sekuentzia batekin lotuta daudenean, betiere niretzat esanahia duen zerbait adierazten badute.
- Testu bat osatzeko marrazkiak eta hitzak lotu eta ordenatu.



- Fitxen, karten edo taulen informazioa ulertu, mahai-jolas edo rol-joko batzuetan aritu.
- Instrukzioak begiratu beharrezkoa den guztietan.



- Nire kabuz ulertu istorio edo narrazio bat, testu idatziarekin batera CDa edo kasetea erabiliz gero.
- Testuinguru jakinetan zenbait ohituraren esanahiaz ohartzeko gai naiz: orrialdea noiz pasa behar dudan adierazten didan musika...
- Esanahia ulertzeko irudietara jo.
- Hitz eta esaera batzuen profila ezagutu.
- Ikasgelako liburutegia erabiltzeko arauak ulertu eta jarraitu; bukatutakoan, gauza bakoitza dagokion lekuan uzten dut.



- Ezagutzen dudan liburu bat gainbegiratu eta bertan kontatzen den istorioa gogoratu.
- Isilean irakurri eta ulertu komiki antzeko sekuentzietan oinarritutako narrazio-testu errazak.
- Aurkitu informazioaren bat testu batean: pertsonaien izena, beren bizilekua...
- Informazio-testu erraz batzuen eskema ezagutu eta informazio zehatza bilatzeko gai naiz: nola aldatu nire kontsolako pantaila, jolas batean lortutako puntuen berri nola eduki, etab.



# Trebetasuna: Idatzi

Idaztean nire letra ona ez bada ere, maiz akatsak egiten baditut ere eta marrazkien laguntza behar izaten badut ere.


## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Narrazio bat atondu irudietan adierazitakoa antolatuta.
- Narrazio batean ilustrazioen ordena aldatu, hainbat esanahi izan ditzan.




- Oinarrizko hitz eta esaldi batzuk idatzi: leku-, pertsona- eta gauza-izenak. Oroigarri gisa erabili ahal izateko, eraman txarteletara, argazki-albumera, nire Portfolioara...
- Idatzi nire izena, irakurtzen ari naizen liburuaren izenburua, gogoko ditudan gauzen zerrenda, etab.
- Taldean egin ikasgelako txokoetarako txartelak: Portfolioak, koloreak eta gometsak gordetzeko apaletarako, nire marrazkietarako (horiei data jartzen diet).



- Galdera-sorta edo formulario erraz bat bete izenarekin, kolore-giltzarriak erabilia edo zenbakiak gehituta.
- Gertakizunen bat edo pertsona baten ezaugarriak deskribatzen dituzten marrazkiak egin.



- Zorion-txarteletako testuak marraztu edo kopiatu.
- Marrazkiei gehitu esaldi edo hitzak, narrazio-testu laburrak sortzeko; emandako ereduak, neurri batean, berreginez edo galdera errazei erantzunez.
- Gainera, gozatu egiten dut ezagutzen ditudan errima eta aho-korapiloak kopiatuz edo pixka bat aldatuz.




## Trebetasuna: Entzun

Lasai nago, egoera ezagun batean, nire adinerako jarduera egoki bat egiten. Zuzenean ari bazaizkit hizketan edo narrazio bat entzuten badut, film batean, telebista-saio batean edo egoera birtual batean ikusten badut, beti ere espero dudana hizkera argi eta egokia erabiltzen bada, gertakizun, ekintza edo ikusten ditudan objektuekin lotuta badaude hitzak eta esaldiak,

### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Egoerak ezagutu eta pertsona bakoitzari egokitutako betebeharrarekin lotu: aitona, neska, nori kontatzen dituzten ipuinak, noiz hitz egiten da batera, etab. Ezagutzen dituzten oheratzeko eta jaikitze ohiko ditudanak: ipuinak kontatu, errimak, otoitzak, agur- eta harrera-esapideak esan, etab.
- Ezagutu egoerarekin lotutako objektu batzuek adierazteko hitzak: pijama, ohea, gau-mahaia, argiontzia, leihoa, gortina, eguzkia, ilargia, izarrak, etab.
- Simulazio-jolasaren bidez ohitura horietan esku hartu, hitz egiten duenaren intonazioa bere aldarrearekin identifikatu. Lotu deskribatutako egoerak sentitzen duenarekin: iluntasunari beldurra, lasaitasuna...



- Gorputzaren garbitasunarekin lotutako ekintzei eta objektuei buruz noiz hitz egiten den bai testu instruktiboetan, bai narratiboetan eta deskriptiboetan ere.
- Egunaren tarte bakoitzarekin lotuta dauden jarduera-sekuentziak ulertu eta irudikatu: hortzak garbitu otorduen ondoren, eskuak garbitu otorduak baino lehen, etab.
- Lotu "garbia" edo "zikina" kalifikatzaileak ezaugarri jakin batzuek dituzten pertsona edo objektuekin: eskuoihal zikina, eskuila garbia, esku zikinak... Eta garbitasun faltaren ondorioak aipatu.
- Keinuz eta objektuak erakutsiz entzundakoa egiaztatu, adibidez: eskuak erakutsi edo hortzetako eskuila jaso, egiteko eskatu zaiona ulertzen duen egiaztatze.



- Jantzia identifikatu bere ezaugarri konplexuenak adierazita deskribatzen denean: tamaina —handia, txikia—, koloreak, etab. (oinarrizko juntagailuak erabiltzen direnean "eta, baina").
- Jantzien zatien zenbait izen ezagutu: lepoa, maukak, zapatiletako lokarriak, gerrikoa, etab.
- Jantziak jantzen ditudaneko eguraldiarekin lotu: zira —euria ari duenean—, berokia, eskularruak eta kapela —neguan—, etab.



- Ulertu noiz ari diren janarien inguruan hizketan, nondik ekarriak diren jakin kasu batzuetan eta eguneko zein unetan hartzen diren: gosari, bazkari, askari edo afarian.
- Errezeta bat egitean, osagarriak eta oinarritzko eginbeharrak ezagutu: arrautzak-irabiatu; irina- nahastu; frijitu, erre, egosi, labean erre, etab.
- Sukalde bateko elektragailuak noiz aipatzen diren atzeman eta honako hauek nola erabiltzen diren badakit: sukaldea, hozkailua, labea, etab.
- Errezeta erraz eta ezagun bat egiteko, ahoz ematen zaizkidan argibideak jarraitu (ogitartekoa, entsalada, etab.).

### Ikastetxean,


#### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Ulertu eta adeitasunez erantzun sarrera- eta irteera-agurrei, baita ohiko erritualei ere: dagokion esekitokian zintzilikatu nire jantziak, nire eserlekua aurkitu, alde batetik bestera ibili irakaslearen aginduei jarraituz.
- Lotu jarduera horiek egiteko modu egokiarekin: poliki, azkar, tentuz, mantso, etab.
- Beste jarduera bati ekiteko edo lekuz aldatzeko baimenik badaukadan ala ez jabetu.




- Ulertu instrukzioak eta nire laguntza eman gela txukun eduki ahal izateko.
- Entzun eta jarraitu nagusiek ematen dizkידaten instrukzioak: gelako txokoetara joan, kaxak jaso, halako apaletan kokatu, goian edo behean, txokoen edo guneen ezkerretan edo eskuinetan, etab.
- Lanak modu koordinatuan egiten laguntzen digun kantu edo olerkiren bat ezagutu.



- Ekintzan oinarritutako klase-emankizun bat ulertu eta jarraitu, informazioa argia eta ongi egituratutakoa bada, mugimendu jakinekin lotua eta irakaslearen ekintzarekin lagundua, nahiz eta keinu eta erantzun fisikoa baino gehiago behar izan.
- Jolasekin edo ariketa fisikoekin lotutako jardueretan parte hartu: dramatizazioa, adierazpen plastikoa, musika.
- Ikastetxean barrena ibili eta lekuz aldatzeko aginduak jarraitu: sartu eta atera, gela batetik bestera joan, atarira atera, etab.



- Istorio labur batean edo bideoz emandako kontakizun bateko sekuentzia batean gertatua ulertu, beti ere gaia eta pertsonaiak ezagunak badira, irudietan oinarritu banaiteke eta irudien sekuentzian, keinuetan eta pantailan ikusten ditudan ekintzetan aurki baditzaket giltzarriak.



Nire adineko neska-mutilekin jolasten naiz, pertsona heldu baten laguntzarik gabe.

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Kantu, errima edo leloekin lotutako erritmo-jolasetako arauak ulertu eta haietara moldatu. Dena ulertzen ez badut ere, ulertzen dut edo ondorioztatzen dut zer egin behar dudan, eta noiz den nire txanda goma-jolasetan, sokasaltoan, etab.
- Dona-dona egiteko erabiltzen diren zenbait leloren oinarritzko doinua ezagutu eta ahopeka lagundu.




- Jolasaren une bakoitza zehazten duten hitzak eta esaerak ulertu eta egin beharreko mugimenduak eta jolas bakoitzeko jarduera-sekuentziak ezagutzen ditut (harrapaketan, gordeketan, etab.).
- Ezagutu eta erabili haiekin lotutako lelo edo kantuek eta ekintza-jolas horien adierazpen jakinak.

Nire Inguruko Hizkuntzak eta Kulturak,

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Bereizi eta ulertu leku batetik bestera joateko aginduei lotutako zenbait hitz, eta, ikusten ditudan keinuei eta mugimenduei esker, zer egin behar dudan ondorioztatu.
- Kanean ibiltzeko oinarritzko instrukzio zenbait ulertu eta jarraitu, ikusten ditudan keinuetan oinarrituta: errepidea gurutzatu, semaforoan itxaron —gorri—, pasa —berde—, aurrera begiratu, eskailerak igotzeko oina jaso...
- Ohiko guneak izendatzeko erabiltzen diren hitzak ezagutu, eta zenbaitetan bertako hotsekin eta beren irudikapenarekin lotu: etxea, ikastetxea, denda, autobus-geltokia, etab.
- Kantatzen ditugun abestien edo erritmoen martxaren arabera mugitu. Martxa edo mugimenduzko kantu tradizionalen erritmora mugitu eta ahopeka kantatzen ditut, eta haien laguntzaz pausoa markatzen dut.



- Inguru hurbila arakatu, eta nagusiek honako hauen inguruan ematen dizkidaten informazioak ulertu: urtaroak, eguzkia, argia, hodeiak, euria, zuhaitzak, landareak eta animaliak. Haien izendatzeko eta haien arteko tamaina, itxura eta abarren arteko loturei antzemateko interesa azaltzen dut.
- Egoera berezietan egiten ditudan zenbait ekintza gogoratu: ziprirtindu, palastan aritu, lehortu, etab. Eta zer gunerekin eta objektorekin lotuta dauden ere gogoratu: putzuak, basoa, elurra, igerilekua...



- Nire inguruko zenbait zerbitzu komun ezagutu; besteak beste, dendak, supermerkatuak, museoak eta aisialdiko zentroak. Telebistan ikusten ditudanean, bertan kokatu edo bertan banengo bezala jolasten naiz.
- Erosketa-ohitura zenbait ulertu eta jarraitu: produktuak eskatu, eman, saskian sartu, ordaindu edo kobratu, jokatzeko dudaren arabera.
- Bereizi zenbait denda mota eta bertan zer eros daitekeen: okindegia, harategia, barazki-denda, arropa-denda, merkataritzaguneak, etab.
- Erosketa-eragiketetan erabiltzen diren hitz eta esaketa batzuk ezagutzen ditut, erosteko batzuk ere izendatzen badakit.
- Irudikatu zer aurkituko dudun museoetan, aisialdiko zentroetan edo kirolguneetan; baita nolako izan behar duen nire portaerak ere.




# Trebetasuna: Hitz egin

Hitz egiten dudanean, edota pertsona heldu bati entzundako hitzak eta esaldiak errepikatzen ditudanean, ahoskatze-arazoak, azentu aldeak, geldiuneak eta duda-mudak gorabehera, eta zenbaitetan hitz eta esaldi batzuen "doinua" bakarrik ekoizten badut ere,

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Eguneko zer memento den eta nola nagoen agurtu.
- Ezagutzen ditudan agurren artean, helduei esateko edota nire adineko neska-mutilei esateko egokienak aukeratu: egun on, arratsalde on, kaixo...
- Elkarrizketa bati hasiera edo bukaera emateko esaldi ohikoenak ezagutu.



- Mugimendu-jolasetako kanta eta leloak kantatu, eta dagozkien mugimenduak egin eta erritmoa jarraitu.
- Kantuaren letra guztia gogoratzen ez dudanean, ordezkatu esaerak eta hitzak ahopeka esandakoarekin; horrela, jolasarekin jarraitu ahal izango dut esaten dudana oso ongi ulertzen ez bazait ere.
- Jolasak eskatzen duenaren arabera, errimak edo kanta azkartu edo mantsotu.
- Kanta tradizionalak kantatu eta jolas jakinekin lotu.




- Irudikatutako objektua edo animalia izendatzeko hitz bakarra esan beharreko asmakizun-jolasetan aritu.
- Esan dudana indartzeko edo hobeto adieraztea lortzeko, keinu eta mugimendu argiak erabili.
- Nire txanda itxaron eta besteena errespetatu.



- Keinuez, mugimenduez eta, behar izanez gero, objektuez baliatuta egiten dakizkidan ekintzak deskribatu: "oso gora jauzi egiten dut, hamar arte kontatzen dut, kaxak esku batekin hartzen ditut, pintzelarekin margotzen dut...".
- Neure burua eta beste pertsonen ezaugarri oinarritzkoak deskribatzen ditut: ezaugarri fisiko eta psikologikoak, eta haiei buruzko nire iritzia ere eman dezaket.
- Beste pertsona batzuen edota fikziozko edo asmatutako pertsonaien trebeziak adierazten ditut: Txomin Ipurdi erre nahi zutenean, sua itzali...






- Heldu baten laguntzaz pertsonaia bat jokatu, buruz ikasitako testu laburren bidez gertatzen dena deskribatuz edo kontatuz, sentimenduak eta desioak adieraziz, betiere gai ezagunen inguruan ari banaiz eta modu labur eta errazean, keinuen eta gorputz-adierazpenaren laguntzarekin.
- Konturatu eszenatokira noiz sartu eta bertatik noiz atera behar dudana.
- Ipuin baten kontakizunean eta dramatizazioan parte hartu narrazioaren hasiera eta bukaera esaldi berezkoak erabiliz: "Bazen behin...", "eta hau horrela bazan... sar dadila kalabazan, eta atera dadila Donostiako plazan".
- Ipuin tradizioaletako pertsonaiei egotzi esaldi ezagunak: "putz egin eta putz egin, eta etxea botako dut...".
- Errimak, aho-korapiloak eta olerki tradizional laburrak errezipitatu eta jarduera horiekin gozatu.



- Ezagutzen ditudan edo irudikatzen ditudan lekuak deskribatu modu errazean, keinuen eta mugimenduen laguntzaz.
- Gertakizunak kontatzeko zenbait hitz eta esaldi (atzo, gaur, bihar, beste egun batean, ondoren, lehen...) erabili.
- Zerbait adierazteko esaldiak lotu: "zergatik, eta, baina...".



- Telefonoz edo ordenadore bidez hitz egin, aurrean ez daukadan pertsona bati gertatu zaidan zerbait kontatzeko, deskribatzeko edo haren berri emateko, betiere pertsona heldu batek laguntzen badit (adib. hortza erori eta Maritxu Teilatukok burukoaren azpian jarri didanaren berri eman).
- Informazioaren gako-hitzak indartuz, hanpatu esan nahi dudana.
- Laburtzen ez badut ere, gai naiz entzundakotik zenbait gako-hitz erreplikatzeko.



## Trebetasuna: Elkarrizketan aritu

Elkarrizketa bat izaten dudanean, egoera ezaguna eta lasaia bada, nirekin ari den pertsona aurrez aurre badut, begiratzen badit eta esandakoa errepikatzeko prest badago, bere laguntzaz gain, testuinguruak eskaintzen didana eta inguruko pertsona helduek ematen didatena badut,

### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Elkarrizketa bat hasi, jarraitu eta bukatu, keinuen eta begiraden bidez. Adeitasun-esapide egokiak erabiltzen ere badakit.
- Informazio-truke laburrak egin honako hauen inguruan: itxurako egoera batean edo benetako egoera batean, betiere irakasle baten laguntza badut, nire apetak, nire ohiturak, nire familia eta lagunartea, jaten dudana, esperientziaren bat...
- Esan nahi dudana esateko, jada besteek esandakoaz baliatuta, tonu- eta hurrenkera-aldaera txikiak eginda, hitzak eta esaldiak errepikatu.
- Keinu egokiz lagunduta, norbaiti zerbait eskaini, beste pertsona batzuk gonbidatu edo haiek egindako gonbidapenak onartu.



- Gauza errazak eskatu —"pasa iezadazu zapatila" bezalakoak— eta jolas-egoera ezagunetan eskaintza bat onartu edo errefusatu. Gainera, badakit elkarrizketari eusten, jolas-eredua errepikapenean oinarrituta: "orain emadazu kapa eta kapela".
- Giza harremanetako zenbait adeitasun-formula egoki erabili: faborez, eskerrik asko, barkatu, etab.




- Eraikuntza-jolasetan, elkarlanean egindako margolan edo horma-irudietan eta simulazio-jolas errazetan parte hartu keinuen eta objektuen laguntzaz.
- Ezagutu eta erabili hotsak eta onomatopeiak elkarreragineko ariketa errazetan, deskripzioak edo hitzak ordezkatzeko.
- Keinuen, soinuen eta giza formula egokien bidez, adostasuna edo desadostasuna adierazi, barkamena eskatu edo onartu, nire laguntza eskaini, kexatu...



# Trebetasuna: Irakurri

Irakurtzen dudanean, testutzat hartzen dut bai irudiek diotena bai idatziz dagoena.

## Gai naiz honako hauek egiteko:




- Ordenagailu-joko bat hasteko beharrezko informazioa identifikatu, ezagutzen ditudan ikurren eta entzuten dudan informazioaren laguntzaz.
- Idatzita ematen zaizkidan agindu eta instrukzio errazak ulertu, giltzarri den irudi baten laguntza badut eta jolasaren eskema ezagutzen badut.
- Gertaera jakinak oinarri dituzten zorion-txarteletako mezu laburrak irakurri eta ulertu, betiere bidaltzen duen pertsona ezagutzen badut eta zergatik bidaltzen duen argi badut.
- Irudiak, kolore-kodeak, zenbakiak eta hitzak dituzten informazio-testu errazetatik informazioa atera.



- Zentzua eman idatzitako hitz solteei, betiere esanahia argitzeko irudien laguntza badut.
- Konturatu noiz dagoen testu bat ordenatuta eta noiz ez, eta laguntza pixka batekin, zentzu osoa emanda, birmoldatu.
- Memoria-jolas motzak eta hitz-puzzleak egin.



- Ulertu istorio bat edo kontakizun bat, CD edo kasete baten laguntzarekin. Konbentzio batzuk ere ulertzen ditut: letra larriz idatzitako izenburuak, onomatopeiak adierazteko moduak (letra etzanaz), etab.
- Esanahia ondorioztatzeko irudien laguntza bilatu.
- Testu erabilienetatik kanpo hitz eta esaera ezagun batzuk identifikatu.
- Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegiko erabilera-arauak ulertu eta jarraitu, eta bukatzen dudanean, gauzak bere lekuan kokatu.



- Testuinguru bateko esaldiak irakurri ahoz gora, zentzu osoa emanda.
- Egitura errazeko (lineala edo ziklikoa) narrazio-testuak ahopeka irakurri eta ulertu; kontalaria eta pertsonaiak noiz ari diren bereizi, eta beren arazoei hainbat soluziobide irudikatu.
- Irudietatik eta testutik lortzen dudan informazioa bereizi, esate baterako, pertsonaia nagusiaren izena, ilearen kolorea, etab.
- Hitz baten edo gehiagoren bila jolastu lagunerekin.

# Trebetasuna: Idatzi

Idaztean nire letra ona ez bada ere, maiz akatsak egiten baditut ere, eta marrazkien laguntza behar izaten badut ere.


## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Irudi sorta bat antolatu helburu jakin baten arabera: kontakizun bateko irudiak antolatu zentzua emanez, edo kontzeptu-segidak egin handienetik txikienera, txandakatuz, etab.




- Oinarrizko informazio batzuk idatzi, esate baterako, egondako leku batzuen izenak, ikusi ditudan gauzenak edo egindako jarduera batzuenak, eta erabili irteera eta txangoetako oroigarri gisa.
- Idatzi nire izena, liburutegitik ateratako liburu baten izena, ordenagailu-programa batean sartzeko pasa-hitza, etab.
- Ikasgelako guneak —"hizkuntzen edo matematiken txokoa", "liburutegia"... — bereizteko txartelak egin ikaskideen laguntzarekin. Egutegiak, ordutegiak eta informazioko horma-irudiak egin eta haietan idatzi: zer ikasi dugun, zer eguraldi egiten duen, zer egitasmo dugun, etab.
- Esango dudana planifikatu eta testuak antolatu zirriborroetan, eta ondoren garbira pasa.



- Bete zenbait galdera-sorta edo formulario errazak: nire izena idatzi, nahi dudana gurutze batez adierazi edo hainbat erantzunen artean bat aukeratu, zenbakiak idatzi edo gune bat koloreztatu kodearen arabera.
- Beharrezko esaldiak kopiatu informazio edo deskripzio testuak sortzeko, betiere pertsona nagusi batek laguntzen badit aukeraketan, eta nire lana euskarritzen badu.
- Aztertzen ari naizen arlo bateko proba idatzi errazak egin, aukera anitzeko testak direnean edo informazio idatzi bat aukeratzeko, kopiatzeko edo berrantolatzeko lana denean.



- Marraztu eta idatzi zorion-txartelak, esaldi eginak erabiliz.
- Marrazkiei esaldiak edo hitzak gehitu, kontakizun-testu laburrak sortzeko; irakurri dudana kontakizun bat birsortu edo aldatu.
- Gozatu errimen, aho-korapiloen, asmakizunen, kanten eta haur-olerki ezagunen aldaera kolektiboak eginez, jatorrizko errima eta erritmoa nolabait errespetatuz.





# Trebetasuna: Entzun

Lasai nago, egoera ezagun batean, nire adinerako jarduera egoki bat egiten. Zuzenean ari bazaizkit hizketan edo narrazio bat entzuten badut, film batean, telebista saio batean edo egoera birtual batean ikusten badut, betiere espero dudana hizkera argi eta egokia erabiltzen bada, gertakizun, ekintza edo ikusten ditudan objektuekin lotuta badaude hitzak eta esaldiak,

## Gai naiz honako hauek egiteko:

- Irudikatutako egoerarekin lotutako erritoak ulertu eta keinuz jarraitu, egoerarekin lotura duten hitz batzuen eta esaldi batzuen laguntzaz: "logale naiz", "orain, lotara", "gabon", "egun on", "gora!", "esnatu!"...
- Logelako objektu bereizgarri batzuk eta haiekin egiten dudana identifikatu: tapakiz estali, burukoa harrotu, argia itzali, gortinak zabaldu, etab.
- Egoera honetan erabiltzen diren adetasun-esaerak ezagutu eta konturatu noiz jokatzeko duen norbaitek adetasunik gabe.
- Ipuinetako pertsonaien intonazioak eta haiek erabilitako hitzek adierazten duten aldartea lotu eta egoeratik ondorioztatu.
- Umore, beldur edo suspensearen ezaugarri oinarritzko antzeman, horrelako istorio edo ipuin batean.
- Gorputzaren garbitasuneko objektuei edo jarduerari buruz noiz ari diren konturatu, bai instrukzio-testuetan eta baita narrazio- edo deskribapen-testuetan ere, egoera benetakoa edo kontakizun batekoa bada ere.
- Jarduera-sekuentzia batean, horiek aurrera eramatean, koherentzia eta koherentzia faltari antzeman.
- Keinuak erabili entzuten dudala eta ongi ulertu dudala frogatzeko, edo argi geratu ez zaidan zerbaiti buruz galdetzeko.
- Ondorioztatu istorio edo kontakizun batean zer gertatuko den jada kontatutakotik aurrera, edo oinarritzko deskribapen batean oinarrituta (adib. pertsona garbia edo zikina), gai naiz pertsonaiek egoera jakin batean zer egingo duten edo zer gertatuko zaien asmatzeko.
- Garbitasunarekin lotutako jarduera bat egiteko baimena noiz eskatzen den ulertu: komunera joateko, eskuzapia erabiltzeko, bainatzeko, burua garbitzeko, etab.





- Ulertu eta identifikatu zer jantziri buruz ari diren hizketan tamaina, ehundura, kolore edo apaindura jasotzen duen deskribapena entzunda: "handia, ertaina edo txikia", "lodia edo mehea", "marraduna, marrazkiduna edo inprimatua", "tantotua"...
- Ezagutu etiketa eta identifikatu ematen duen informazioren bat, esate baterako, tamaina edo zapataren zenbakia
- Lotu jantzi bakoitza eragiten duenarekin: beroa edo freskura; baita diseinuaren helburuarekin ere: bainua hartu, ikastetxera joan, ariketa fisikoa egin, marraztu, ibili, etab.




- Nabaritu noiz hitz egiten den janari jakin batzuei buruz elkarrizketa batean, eta keinu, irribarre edo buruaren mugimenduez adierazi nire hobespenak.
- Bereizi gazia eta gozoa, garratza eta mikatza, eta baita zenbait elikagaiaren usaina eta zaporea ere.
- Ezagutu sukaldeko esku-tresnak eta mekanikoak, beren ezaugarriak eta non gordetzen diren.
- Errezeta bat egin benetako osagarriak edo balizkoak erabiliz, eta zer pauso eman beharko diren aurreratu.

**Ikastetxean pertsona nagusi baten laguntza badut.**



### **Gai naiz honako hauek egiteko:**




- Ulertu une jakinekin lotutako zenbait oinarrizko ohitura; besteak beste, ikasgelatik atera eta sartu, mahaia eta gela txukundu eta denbora antolatu. Ikastetxeko beste leku batzuetan jarraitu beharreko jokabidearen inguruko aginduak ere ulertu.
- Kontakizun batean gertatuak ikasgelako jarduerekin duen lotura ulertu, ikusmen-eusgarririk badut.



- Oinarri fisikoa duen klase-emankizun bat jarraitu: ariketa fisikoan, kirol-jardueretan, eskulanean edo musika-adierazpenean oinarrituta. Betiere iturri askotatik jasotako informazio argia badut eta erantzun fisikoa edo keinu bidezkoa eskatzen badidate.
- Nire jarduerak aldatu eta esandakora moldatu edo hutsegiteak zuzendu nire jarduerak gainontzekoekin konparatu ondoren.
- Behar dudanean laguntza eskatu keinuen edo ama-hizkuntzarekin nahastuta esandako hitzen bidez.



- Ulertu bideoz edo telebistaz emandako istorio, dokumental edo haurrentzako saio bat, gaia eta pertsonaiak ezagunak direnean eta sekuentzietatik informazioa atera ahal izateko irudiak nahiko argiak direnean.
- Ezagutu programa eta pertsonaia batzuen esanak eta abestiak, beste pertsonai batek esaten dituenean ere.
- Istorioko pertsonaia nagusiak eta gertakizunak identifikatu eta iragarri zer gertatuko den, edo laburtu nire ama-hizkuntzan gertatu denaren zantzu nagusiak haria jarraitzeko arazoak dituenari.



- Ideia nagusia ulertu gai hauek jorratzen dituzten testuetan: neure burua, animaliak eta inguruko gauzak. Baita beraien ezaugarriez ari direnean ere: tamaina, pisua, gorputzaren egitura edo nire gorputzaren barne-funtzionamendua. Betiere, heldu batek gidatutako ikasgelako esperientzia zuzenean oinarrituta badago.
- Nire gorputza eta harekin egiten ditudan jarduerak deskribatzen dituzten hitzak eta esaerak ezagutu: ibili, lasterka egin, salto egin, hankak jaso, makurtu, hankak elkartu, etab.




- Kanta batean deskribatzen diren mugimenduak egin eta musikak agintzen duen erritmora moldatu.
- Sentimenduak eta desioak adierazten dituzten zenbait narrazio-kanta ulertu, keinuekin eta mugimenduekin erantzun eta musikaren erritmoari eta hitzei egokitutako koreografia bat adostu.

Atarian, lorategian edo parkean nire adineko edo pixka bat helduagoak diren hurrekin egiten diren **jolasetan**,


### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Jarduera komunetan oinarritutako jolasetan aritu —gordeketan, harrapaketan, sokasaltoan...—.
- Jolasaren arauak eta une bakoitzean egin beharrekoa ulertu eta mugimenduetara moldatu.
- Jarduera-jolas hauetako hitzak edo dagokien leloa erabili.



- Kanta, errima edo leloekin lotutako erritmo-jolasetako arauak ulertu eta jarraitu. Dena ulertzen ez badut ere, zer egin behar dudan eta noiz den nire txanda ondorioztatzen dut. Jolasteko berregin edo ahopeka esaten ditut memento bakoitzari lotutako leloak: dona-dona, hasera- eta bukaera-esapideak.
- Kexatu eta arauak kontuan hartuta, nork irabazten edo galtzen duen ikusita erabaki.
- Ezagutu jolas tradizioletako zenbait lelo edo kantu: korru-kantak, soka-saltokoak eta "txorro, morro, piko, tailo, ke" bezalako leloak.




Nire inguruko hizkuntzak eta kulturak,

### Gai naiz honako hauek egiteko:

- Leku batetik bestera joateko aginduak ulertu, keinuetan eta mugimenduetan oinarrituta badaude.
  - Oinarrizko jarduerak egiteko instrukzioak ezagutu eta jarraitu: errepidea gurutzatu —geratu, alde batera eta bestera begiratu, eta libre badago, pasa; itxaron semaforoak adierazi arte...—.
  - Ohiko guneak izendatzeko erabiltzen diren zenbait hitz eta objektu identifikatu: besteak beste, etxea, ikastetxea, denda, autobus-geltokia, autoa eta motorra. Beren hots eta erabilerarekin lotzen ditut.
  - Trafiko-arauak ezagutu eta errespetatu, eta hainbat egoeratan izan beharreko portaerari erreparatu.
  - Kantatzen ditugun erritmoen eta kantuen martxaren arabera mugitu eta momentoko egoerarekin lotu.
- 
- Inguru hurbila arakatu eta nagusiek ematen dizkidaten informazioak ulertu: euria, eguzkia, argia eta bere distira, eguna eta gaua, landareak eta animaliak. Oinarrizko ezaugarriak aurkitzeko interesa azaltzen dut.
  - Jarduera-sekuentziak ezagutu eta aurrera eramateko beharrezko objektuak erabili, esate baterako, intsektuak bildu, lupa erabili, mugimendua behatu, etab.
- 
- Eguneroko ohiturei lotutako jarduerak ezagutu eta jolas moduan burutu: supermerkatuara joan —saltzailearen eta eroslearen eginbeharrak identifikatu—. Denda motak bereizi eta ezagutu haietako bakoitzean saltzen diren zenbait gai, baita salgaiak izendatzeko erabiltzen diren hitzak ere.
  - Pertsona heldu bati lagundu aisialdi-lekuetara: zinera, antzokira edo jolas-parkera. Sendagilearenera joan egoerak eskatzen dituen jokabideei egoki erantzunez.
  - Museoak ikustera joaten naizenean edo bisita turistikoak egiten ditudanean, jokabide egokia izan eta ikusitakotik zenbait gauza aipatu.







# Trebetasuna: Hitz egin

Hitz egiten dudanean edota entzun ditudanak errepikatzean, erabat ondo ahoskatzen ez badut ere eta azentua nabaritzen bazait ere, askotan geratu eta hitzen eta esaldien "musika" bakarrik sortu arren,

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Eguneko zer memento den eta nola nagoen agurtu.
- Ezagutzen ditudan agurren artean, egokienak aukeratu helduei edo nire adineko neska-mutilei esateko: egun on, arratsalde on, kaixo, etab.
- Agur egoki batekin hasi eta amaiera eman elkarrizketa bati.
- Hainbat barne-egoera adierazi agurtzeko tonuaren arabera.




- Mugimenduzko jolasetako kanta eta leloak kantatu eta dagozkien mugimenduak egin. Letra guztia gogoratzen ez dudanean, ahopeka esaten dut eta gogoratzen ditudan hitz batzuk esaten ditut.
- Jolas jakinekin lotuta dauden kantu tradizionalak kantatu.
- Esan errima, lelo, aho-korapilo edo kantuak mantso-mantso edo azkar-azkar.
- Aldez aurretik ados jarri ikaskide batekin erritmo batera egokitze eta gertatzen ari denera moldatu.



- Irudikatutako animalia edo objektua izendatzeko hitza asmatu beharreko jolasetan aritu.
- Hitzak nahiko zuzen ahoskatu, nirekin jolasean ari direnek ongi uler ditzaten.
- Esan nahi dudana hobeto adierazteko keinu eta mugimenduak erabili eta entzuten dutenek uler dezaten saiatu.
- Nire txanda itxaron eta besteena errespetatu.




- Gorputzaren mugimenduaren laguntzaz, deskribatu trebezia adierazten duen jarduera-sekuentzia bat edo trebetasunik adierazgarrienetako batzuk: "pilota bat punpatu", "hanka bakarraren gainean salto egin", "begi bat kliskatu"...
- Ikaskideren bati aditzera eman emaitza hobekak lortu ahal izateko zer egin behar duen.
- Deskribatu nire ezaugarri fisikoetako batzuk: arraza, sexua, luzera, begien kolorea, eta besteekin erkatu.
- Deskribatu beste pertsona batzuen edota fikziozko edo asmatutako pertsonaien trebeziak.



- Nirekin dagoenari ikusten dudana deskribatu: esaldi errazak erabiliz eta keinuen beharrik gabe, ezagutzen edo irudikatzen ditudan espazioak eta lekuak.
- Ezagutzen ditut zenbait hitz eta esaera gertakari-sekuentzia bat modu egituratuan azaltzeko eta denbora erreferentzietan kokatuta emateko (atzo, gaur, bihar, orain dela urte batzuk...).
- Gauzen zergatia adierazteko esaldiak lotu lokailu bidez.



- Gai naiz gertatu zaidan zerbait kontatzeko, deskribatzeko eta horri buruzko informazioa lortzeko, aurrean ez daukadan bati, betiere pertsona nagusi baten narrazioan oinarrituta edo aldez aurretik prestatu badut.
- Erabili informazio garrantzitsuenaren errepikak eta gako-hitzetan indarra jarri hobeto adierazi ahal izateko.
- Laburpen gisa, errepikatu entzundako gako-hitz horietako batzuk.




## Trebetasuna: Elkarrizketan aritu

Elkarrizketa bat izaten dudanean, egoera ezaguna eta lasaia bada, nirekin ari den pertsona aurrez aurre badut, begiratzan badit eta esandakoa errepikatze prest badago, eta bere laguntzaz gain, testuinguruak eskaintzen didana badut.

### Gai naiz honako hauek egiteko:

- Elkarrizketa bat hasi, jarraitu eta bukatu, keinuen eta begiraden bidez. Elkarrizketari eusteko, badakit oso garrantzitsua dela hitz egiten diodan pertsonari begiratzea, eta baita keinuen bidez informazioa eskatu eta sentitzen dudana adieraztea.
- Benetako egoera batean nire apetak eta lehentasunak adierazi, zer jan erabaki, ohiko esperientzia bati buruz aritu edo familiari eta lagunartekoei buruzko informazioa trukatu. Betiere irakasle baten laguntza badut, edo elkarrizketa zuzentzen duen batena (simulazio-jolasa denean).
- Elkarrizketa-eredu jakin bat jarraitu, hitz berriak gehitu errepikatzen diren hitz eta esaldiei, edota tonu- eta hurrenkera-aldaera txikiak egin.
- Keinu egokien laguntzarekin norbaiti zerbait eskaini (janaria edo gozokiak...), eta eskaintzak edo gonbidapenak eskertu.
- Hitzak, tonuak eta keinuak erabiliz, jolas baten arauak negoziatu.
- Eraikuntza-jolasetan, elkarlanean egindako margolanetan edo horma-irudietan eta simulazio-jolas errazetan parte hartu, keinuen eta objektuen laguntzaz.
- Ezagutu eta erabili hotsak eta onomatopeiak elkarreraginezko ariketa errazetan, deskripzioak edo hitzak ordezkatzeko.
- Keinu, soinu eta giza formula egokien bidez, nire adostasuna edo desadostasuna adierazi, barkamena eskatu edo onartu, laguntza eskaini, kexatu...
- Ahozko edo ez ahozko hizkuntza erabiliz, beharrezkoa izanez gero, irudi eta objektuen laguntzarekin, erabaki beste pertsonekin nora joan, nola zuzendu leku batera eta zer egin.







# Trebetasuna: Irakurri

Irakurtzen dudanean, testutzat hartzen dut bai irudiek diotena bai idatziz dagoena, edo biak dituzten testuak.

## Gai naiz honako hauek egiteko:

- Ordenagailu-joko bat hasteko beharrezkoa dudan informazioa identifikatu, ezagutzen ditudan ikurren eta entzuten dudan informazioaren laguntzaz.
- Idatzita ematen zaizkidan agindu eta instrukzio errazak ulertu, giltzarri den irudi baten laguntza badut eta jolasaren eskema ezagutzen badut.
- Gertaera jakinak oinarri dituzten zorion-txarteleko mezu laburrak irakurri eta ulertu, testuko gako-hitzak ezagutuz, betiere bidaltzailea ezagutzen badut eta zergatik bidaltzen duen argi badut.
- Testu baten zatiak ezagutu: helbidea, mezua eta sinadura. Horietako bakoitzaren kokapena ere ezagutzen dut.
- Irudiak, kolore-kodeak, zenbakiak eta hitzak dituzten informazio-testu errazetatik informazioa atera.
- Nire kabuz istorio edo narrazio bat isilik irakurri, testu idatziarekin batera CDaren edo zintaren laguntzaz. Esanahiagatik antzematen dut orrialdea noiz pasa behar dudan eta pertsonaien esanen eta narrazioaren arteko bereizketa ere harrapatzen dut.
- Irudiak erabili esanahia ondorioztatzeko.
- Irudietan oinarrituta, aurretik entzundako istorio edo ipuin bat isilik irakurri.
- Testu erabilienetatik kanpo, hitz eta esaera ezagun batzuk identifikatu.
- Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegiko erabilera-arauak ulertu eta jarraitu, eta bukatzen dudanean, gauzak bere lekuan kokatu. Jakin nola jokatu eta norengana jo ikastetxeko liburutegian.
- Egin irudien hiztegia, heldu baten laguntzarekin, eta hitzen esanahia egiaztatzeko erabili.
- Antzezlan irakurrian jolasten naizenean, nire pertsonaiak esaten dituen esaldiak irakurri ahoz gora.
- Egitura errazeko (lineala edo ziklikoa) narrazio-testuak irakurri eta ulertu; kontalaria eta pertsonaiak noiz ari diren bereizi, eta beren arazoei hainbat soluziobide irudikatu.
- Deskripzio- edo informazio-testu erraz batzuen eskema ezagutu —asmatze-jolasena, irudia eta testua batera direnean informazioa asmatzekoa...— horretarako irakurri eta ezagutu behar ditudan galderei zentzua eman eta erantzunak bilatzen ditut.
- Informazioa baten bila jolastu lagunen laguntzarekin.





# Trebetasuna: Idatzi

Idaztean maiz akatsak egiten badituz ere eta marrazkien laguntza behar izaten baduz ere.

## Gai naiz honako hauek egiteko:




- Izenburuak eta argazki-oinak idatzi irudi-album batean txango eta irteeretan jasotako informazio zehatza jasoz. Horrek esperientziak oroitzeko balioko dit.
- Horma-irudiak egin ikaskideen laguntzarekin gela antolatzeko —ordutegia, portaera-arauak—, edo gelan landutako gaien buruzko argibide-etaulak —animalien bizitza, gure nahiak, lan baten plangintza...—.
- Letra motak bereizi izenburuan, testuan edo sinaduran; laguntza pixka batekin gai naiz erabakitzeke atal bakoitzean zer jarri.
- Idazketa-prozesua errespetatu: badakit ezin dudala zuzenean idatzi, aldeztetik antolatu behar dudala zirriborro batean, sartuko dudana hautatu eta arretaz kopiatu, letra zainduz.



- Bete gai ezagunei buruzko galdera-sorta edo formulario errazak: liburutegiko liburu bat eskatzeko datuak, txartela, baita koloretan, zifretan, hitz edo esaldi motzetan oinarritutako informazio zehatza eskatzen duten testuak ere.
- Idatzi mezu txikiak eta laburrak, zorion-txartelak...
- Beharrezko esaldiak kopiatu informazio- edo deskripzio-testuak sortzeko, betiere pertsona nagusi batek laguntzen badit aukeraketan eta nire lana babesten badu.
- Aztertzen ari naizen arlo bateko proba idatzi errazak egin, aukera anitzeko testak direnean edo informazio idatzi bat aukeratzeko, kopiatzeko edo berrantolatzeko lana denean.



- Idatzi posta elektronikoko errazak jasotako batzuei erantzunez edo zorion-txartelak...
- Sortu irudietan oinarritutako narrazio-testu laburrak, egitura ezagun bat jarraituz; orokorrean lehen irakurritako narrazio baten bertsioa da.
- Gozatu errima, aho-korapilo, asmakizun, kanta eta haur-olerki ezagunen aldaera kolektiboak eginez, jatorrizko errima eta erritmoa nolabait errespetatuz.
- Idazketa-prozesu egokia jarraitu: zirriborro bat egiten hasi, eta ondoren erabaki behin betiko idazkian zer jasoko den.





# Trebetasuna: Entzun

Lasai nago, egoera ezagun batean, nire adinerako jarduera egoki bat egiten. Pertsona nagusiak edo haurrak zuzenean ari bazaizkit hizketan, kasete bateko narrazio bat entzuten badut, film bat edo telebista-saio bat ikusten badut, edo jolas birtual batean parte hartzen badut, betiere espero dudana hizkera argi eta egokia erabiltzen bada, hitzak eta esaldiak gertakizunekin, ekintzekin edo ikusten ditudan objektuekin lotuta badaude.


## Gai naiz honako hauek egiteko:

- Egunaren hasiera eta amaierarekin erlazionatuta dauden ohiko hitzak eta esaldiak ulertu eta ezagutu. Egoera horietan helduek eta hurrek esan dezaketena iragar dezaket. Helduak: "ohera!" / haurrak: "itxaron!", "ez naiz logale" / helduak: "egun on", "gora" / haurrak: "pixka bat gehiago!" / helduak: "gosaltzera"...
- Adeitasun edo adeitasunik gabeko esaldiak lotzen ditut jokabide on edo txarrarekin.
- Bereiztu testuan inkoherentziak eta koherentziak eta iragarri narrazio bateko sekuentzia, gaia ezaguna denean.
- Jaso, intonazioari esker, soinuak eta isiltasuna, baita narrazioan ematen diren sentipenak ere: suspensea, beldurra, umore ona edo txarra, lasaitasuna edo emozioa.
- Logelako objektu bereizgarri batzuk eta haiekin egiten dudana identifikatu: tapakiz estali, burukoa harrotu, argia itzali, gortinak zabaldu, etab.
- Pertsonaia baten papera hartu eta imajinatu zer egingo nukeen edo nola erantzungo nukeen egoera horretan, eta iragarri horren arabera zer gertatuko den.
- Deskripzio-testuak ulertu nire inguruan ikusten ditudan gauzen funtzionatzeko eraren arabera: argizagiak eta unibertsoa, ilargia, izarrak, eguna eta gaua, etab.
- Lotarako eta jaikitzeko errituekin lotuta dauden lo-kantak, poemak edo haur-errimak entzuten gozatu (ahozko tradiziokoak) eta kulturako zenbait pertsonaia ohikorekin lotu.





- Ulertu narrazio baten eboluzioa edo simulazio-jolas bat, eta parte hartu zenbait pertsonaiaren paperetan nire sentimenduak eta ekintzak keinuekin adieraziz: eskuak garbitu —haserre—, hortzak garbitu —oso pozik—, orraztu, dutxa hartu edo bainatu —aitona xahar bat edo haur txiki bat bezala—, etab.
- Identifikatu koherentziarik gabeko elementuak eguneroko sekuentzia batean egunean zehar (ohean hortzak garbitu, bazkaldu baino lehen hortzak garbitu, etab.).
- Ulertu ipuin baten zentzua, bertan gorputzaren garbitasunarekin arazoak dituen pertsonaia bati buruz bada, eta antzeman umore, poza edo tristurako ezaugarri batzuei.
- Une jakin batean adierazi ulertzen dudala edo ez dudala ulertzen, keinuen bidez: nire solaskideari eskatu informazioaren bat errepikatzeko edo egiaztatu entzundakoa ahozkoa ez den hizkuntzaren bidez. Horrelakoetan, oinarritzko elkarrizketa euskarriak erabiltzen ditut.
- Erritmoari antzeman eta gozatu garbitasunarekin lotuta dauden kantu, poema edo haur-errima jolasekin (tradiciozkoak edo berriak, —ospetsuak haur-programen bitartez—, etab.).
- Ulertu eta jarraitu nire gorputzaren zaintzarekin lotuta dauden aginduak: soinekoak eta oinetakoak jantzi. Lotu soineko atal bakoitza jantzita eramaten den jantziarekin eta egoerarekin, tenperaturarekin edo unearekin —hotza, beroa, kiroletako arropa, etxeko zapatilak, etab.—.
- Identifikatu ikusten dudana eta esaten denaren arteko inkoherentziak edo hurrenkera-akatsak. Erabilitako tonuagatik eta jasotako informazioagatik umore, tristura edo pozaren ezaugarriak jasotzen ditut.
- Txikienei jantzen lagundu, hitz bat errepikatuz edo keinu baten laguntzarekin nola egin esanez.
- Identifikatu pertsona bat norbaitek soinean daramana deskribatzen duenean.
- Soinekoak edo zapatak jantzeko errutinarako poemen edo haur-errimen soinuarekin eta edertasunarekin gozatu ekintzak egin ahala.
- Ulertu elikagaiek eta ordutegiek sortzen dituzten sentipenei eta hobespenei buruzko elkarrizketak, baita elikagaiei eta nire organismoan daukaten ondorioei buruzkoak ere.
- Identifikatu sukaldeko esku-tresnak eta elektrikoak; barne-erabilera eta bakoitzaren onurak eta arriskuak ezagutzen ditut.
- Ezagutu etxe barruan nahiz etxetik kanpo otorduak egitean eduki beharreko portaera, baita mahai-tresnen, plateren edo edalontzien erabilera ere.
- Identifikatu errezeta bat jarraitzeko pausoak, eta norbaitek azaltzen dituen gai naiz antzemateko zenbait sentipen edo umore, tristezia edo pozaren adierazpenak.
- Gozatu janariarekin loturiko jolasetan, istorioen dramatizazioan, poema, errima edo kantuetan parte hartuz, eta kantuen bertsiok eta onomatopoeian oinarritutako errimak ere egiten ditut.



## Ikastetxean,


### Gai naiz honako hauek egiteko:




- Ulertu une jakinekin lotutako oinarritzko ohiturak: sarrera eta irteera, ordena eta garbitasuna, gelaren antolaketa, ordutegiak, baita ikastetxeko leku ezberdinetan jarraitu beharreko jokabidearen inguruko aginduak ere.
- Kontakizun batean gertatuak ikasgelako jarduerekin duen lotura ulertu, beti ere ikusmen euskarririk badut.
- Jarduera hauetan oinarritzko trukeak egin eta bereiztu portaera ona edo txarra, adeitasun-esapideetan erabilitakoaren arabera.



- Ulertu eta jarraitu kontakizun bat nire kontura —irudien laguntza badut—. Badakit ez dudala ulertu adierazten eta keinuen edo mugimenduen bidez laguntza edo azalpenak eskatzen.
- Nire adinari dagozkion dokumental erako testu deskriptiboetan ideia nagusiarri antzeman diot, beti ere gaiak ezagunak badira, eta pertsonaia ezagunen bidez iristen bazaizkit.
- Istorioko pertsonaia nagusiak eta gertakizunak identifikatu eta antzeman zer gertatuko den, edo laburtu ama-hizkuntzan gertatu denaren zantzu nagusiak haria jarraitzeko arazoak dituenari.





- Zuzenean kontatutako edo antzetzutako istorio baten ideia ulertu eta jarraitu, gertaerak kontatzen dituzten txotxongiloen laguntzarekin —kultura horretan tradiziozko pertsonaia ezagunak antzetzuz—.
- Identifikatu zein unetan sartzen eta ateratzen den antzetzten dudana pertsonaia, konbentziozko keinuak erabili istorioan zer gertatzen den adierazteko, beti ere aurretik proba-saioak egin baditut.
- Isilik jarraitu eta gozatu kontakizun bat; ulertzen dudala edo galdu egin naizela adierazteko konbentzio keinuak erabili, eta beharrezko argibideak edo errepikapenak eskatu. Kontakizuna bukatu ondoren, gai naiz pertsonaien lekuan jartzeko eta sentitutakoari buruz iruzkinak egiteko, edo sortutako arazoari irtenbidea emateko.




- Nire adinari eta nahiei dagozkien haur-kanten erritmoa eta mugimenduak jarraitu eta hitzak diotena ulertu eta jarraitu.
- Identifikatu eta dantzatu edo hitzen edo esaldien erritmoak jarraitu txaloka.
- Bereizi kantuen zenbait zati, adibidez leloak edo bukaerak.
- Tonu- eta erritmo-aldaketak igarri. Ikaskideekin ados jar naiteke mugimendu berdinak egiteko.
- Entzun eta gozatu kultura horri dagozkion erritmo-jarduerak eginez, eta erritmo berriak sortu emandako batetik abiatuta.





- Ulertu oinarritzko informazio zientifikoak, nire adinak eta garapen intelektualak ezartzen duten muga barruan, nitaz eta nire inguruaz: tamaina, pisua, gorputzaren egitura, nire gorputzaren barne-funtzionamendua, objektuen ezaugarriak eta erlazioak —imanak, presioa...—, pertsonen eta animalien arteko konparazioa, mekanismoen funtzionamendua edo inguruaren deskripzioa; betiere informazioa ariketa fisikoan —eskuztatzean— eta ikasgelako esperientzia zuzenean oinarrituta badago.
- Nire gorputza eta berarekin egiten ditudan ekintzak deskribatzen dituzten hitz eta esaldi batzuk ulertu; besteak beste, ibili, lasterka egin, arnasa hartu, makurtu, taupadak egin eta ponpatu. Objektuen ezaugarriak ere ulertzen ditut; esate baterako, indartsua, gogorra eta biguna. Espazioko kokapena ere ulertzen dut: barruan, kanpoan, gainean...




- Jarduera fisikoetan oinarritutako klase-emankizun bat jarraitu: ariketa fisiko edo kirol-praktiketan, jarduera plastikoren batean edo musika-adierazpenean oinarritutakoetan.
- Nekea, mina edo nahasmena adierazteko erabili kultura bakoitzari dagozkion hotsak, keinuak edo esaldiak.
- Aldatu eta esandakora moldatu eta nire hanka-sartzeak zuzendu lortutako informazioa konparatu ondoren.
- Eskatu azalpen bat, laguntza edo informazio gehigarria, keinuak eta oinarritzko adeitasun-esaera batzuk erabiliz.

Nire inguruko hizkuntza eta kulturak,


### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Ingurua arakatu helduek ematen dizkidaten informazioen eta lortzen ditudan dokumental edo programen bidez: lekuak, luraren mugimendua, urtaroak, klima, animaliak eta bere ingurua, organismoak eta mikroorganismoak, etab.
- Esperimentu txiki bat edo magia-jolasak egiteko jarduera-sekuentziak ezagutu.
- Kultura honetako ohiko festak eta ohiturak izendatu eta aipatu, baita berarekin lotutako zenbait errima edo jolas ere. Data jakin batzuetako gertakari eta jarduerak gogoratzen ditut eta nire rola hauetan.
- Honelako testuetako agertzen diren hitz eta esaldiak ezagutzen ditut, baita zientzialari itxura emateko erabiltzen den tonua ere.



- Alde batetik bestera joan, pertsona heldu batekin, entzuten ditudan aginduak jarraituz, keinu eta mugimenduen bidez adierazten direnean.
- Ulertu eta jarraitu kalean daukadan oinarrizko portaera adierazten duten instrukzioak: nola gurutzatu bidea, nola iritsi zenbait lekutara, igo eta jaitsi garraio publiko batetik, txartelen erabilera, zein lekutara joan edo sartu.
- Ezagutu ohiko guneak izendatzeko erabiltzen diren hitzak eta bertan egin dezakedana: zelaia, hiria, basoak, herriak, kaleak, plaza, auzoa, dendak, espaloia, bidea, aparkalekuak, parkea, zinema eta geltokiak. Imajinatu leku horietan egiten diren jarduerak.
- Identifikatu nire inguruan dauden objekturik ohikoenak: kaleargiak, eserlekuak, kulunkak, txirristak, autoak, kamioiak, motoak, bizikletak, autobusak, etab. Lekuak bere hotsengatik ezagutzen ditut, eta hots horietaz baliatzen naiz zer gertatzen den jakiteko.
- Txangoetan egiten diren ohiko jarduerak ezagutzen ditut. Autobuseko abesti edo martxaren bat ere ezagutzen dut, eta bidaietan eta joaten naizen lekuetan eduki beharreko portaera jarraitzen dut.
- Ulertu nire inguruko zenbait lekutan jarraitu beharreko portaeren sekuentzia.
- Ezagutu eta erabili eguneroko jarduerekin lotutako ohiturak: erosketak egin —zenbatean dagoen, eros daitekeena eskatu, batu, kobratu, dirua itzuli—. Bereizten ditut denda motak eta bakoitzean zer saltzen den, baita salgaiak izendatzeko erabiltzen diren hitz batzuk ere.
- Zinemara edo antzokira joan, autobusean igo —txartela erakutsi—, edo sendagilearengana joan pertsona heldu batekin, portaera egokia erakutsiz.
- Museoa ere ikusten ditut, informazioaren ideia orokorra eta egiteko eskatzen dizkidaten jarduerak ulertzen ditut, eta badakit niganik zer portaera espero den leku bakoitzean.




Nire adineko neska-mutilekin **JOLASTEN** naiz atarian, kalean edo parkean, ikastetxean zein ikastetxetik kanpo.

### Gai naiz honako hauek egiteko:

- Jolastu eta gozatu korru-jolas erritmikoetan, kantu, errima edo leloen laguntzaz, ulertu, jarraitu eta arau alternatiboak proposatzeko gai naiz. Funtsean esaten didatena ulertzen dut, betiere zein jolas den dakidanean.
- Ezagutu tradiziozko jolas batzuk beren kantu edo leloen bidez; zein herritatik datozen eta bere izena badakit.
- Identifikatu jolasak noiz gelditu behar duen eta noiz hasi behar duen berriro edo aldatu behar duen, besteen erreakzioak ikusita. Kexatzen ere badakit edo nire adostasuna edo desadostasuna adierazten jolasean ari garenean.
- Kantu, errima edo leloak, edo zenbait objektuekin lotutako erritmo-jolasetako arauak ulertu eta jarraitu: diaboloa; besteak beste, yo-yoa, pilota-jolasak, oreka-jolasak eta esku-jokoak. Esaten den guztia ulertzen ez badut ere, zer egin behar dudan eta nire txanda noiz den adierazten didaten hitzak ulertu eta ondorioztatzen ditut. Jolasean memento bakoitzari lotutako leloak berregiten ditut edo ahopeka esaten ditut: zozketa, hasiera, bukaera eta badakit egokitzen nire mugimendua adierazten duen erritmora.
- Norbaitek poza, desadostasuna edo kexa adierazten duenean ezagutu.
- Jolas tradizioaletako zenbait lelo edo kantu ezagutu eta erabiltzen jakin: "txorro, morro, piko, tailo, ke" bezalako leloak, korru-kantak.
- Identifikatu, jarraitu eta egiaztatu nire ulermena ematen dizkidaten instrukzioekin jolas bat nola garatzen den ikusteko.





## Trebetasuna: Hitz egin

Hitz egiten dudanean edo entzun ditudanak errepikatzean, erabat ondo ahoskatzen ez badut ere eta azentu aldeak nabaritzen badira, askotan geratu eta hitz edo esaldien "doinua" bakarrik erreproduzitzen badut ere, bere ahoskera zuzenaren orde.

### Gai naiz honako hauek egiteko:



- Eguneko zer memento den eta nola nagoen agurtu. Ezagutzen ditut agurren artean egokienak familiarekin, nire adineko adiskideekin edo pertsona helduekin erabiltzeko —beraiengan daukadan konfiantzaren arabera—.
- Adeitsua edo adetasunik gabekoa izan eta agur batekin hasi edo moztu elkarrizketa bat.
- Nire barne-egoera adierazi agurraren tonua aldatuz, era berean adierazten dut gaiaz edo elkarrizketaz dudan nire interes maila.




- Kantatu motrizitate fineko erritmo-jolasak egiten ditudan bitartean, bertan oinarritzakoa da nire mugimenduekin sinkronizatutako kantak, errimak, aho-korapiloak eta leloak edo herri-doinuak sortzea. Besteak beste, txalo-jolasak eta sokasaltoan aritzea, nahiz eta batzuetan hitzak ahopekatzearekin ordezkatu.
- Esan denbora azkartuz eta erlaxatuz, jokoak eskatzen duenarekin eta nire lagunaren koordinazioarekin.




- Asmakizun-jolasetan parte hartu eta aukeratu eskatutako hitz edo hitzak.
- Hitzak nahiko zuzen ahoskatu, nirekin jolasean ari direnek ondo uler ditzaten.
- Asmakizun bat igartzeko informazio zehatzagoa lortzen lagunduko didaten galdera zehatzak egin.
- Keinu eta mugimendu argiak edo anbiguoak erabili hobeto adierazteko eta jolasaren arauetara egokitzeo, eta bereziki nire txanda itxaron eta besteena errespetatu.



- Gorputzaren mugimenduaren laguntzaz trebetasun batzuk deskribatu: "objektu bat eduki buru gainean", "altuera jakin batera salto egin", "betazalak biratu", "irisa mugitu", etab. edo deskribatu lokailu arrunt batzuen bidez lotutako jarduera-sekuentzia bat.
- Nire ezaugarri fisiko garrantzitsuenak deskribatu, baita nire familiarreko eta lagunena ere.
- Deskribatu beste memento batean egindako edo eskuarki egiten ditudan jarduerak, baita lehen egiten nekizkienak edo egiten ez nekizkienak.




- Pertsonaia bat antzeztu, buruz ikasitako testuak gogoratu. Horietan neure burua deskribatzen dut, gertatzen dena edo gertatu dena kontatzen dut, edo nire sentimenduak eta desioak adierazten ditut, betiere gai ezagunen inguruan ari banaiz modu labur eta errazean, keinu- eta gorputz-adierazpenaren laguntzarekin.
- Jakin eszenatokira noiz sartu eta bertatik noiz atera behar dudanez eta nola ordezkatu hitz bat beste baten ordezkari, edo keinuen bidez adierazi antzeztan dudanez pertsonaiaren adierazpen zehatza ezagutzen ez dudanez.
- Narrazio bateko esaldi berezkoak identifikatu, baita tradiziozko ipuinekin lotutako zenbait esaldi ere: "Putz egin eta putz egin, eta etxea botako dut...", "Bazen behin...", "Urte asko, asko pasa ziren, eta behin...", "Eta hau horrela bazan... sar dadila kalabazan, eta atera dadila Donostiako plazan...".
- Errimak, aho-korapiloak eta olerki tradizional laburrak errezipitatu. Funtsean egitura (bertsoa, errima, erritmoa, etab.) gordez gozatu zenbait elementu aldatzen edo hitzak ordezkatzeko jolasten garenean, gozatu.



- Ikusten dudana deskribatu nirekin dagoenari: ezagutzen edo irudikatzen ditudan espazioak eta lekuak, inguruko pertsonak eta izakiak —errealak eta irudizkoak— eta egiten dituzten ekintzak, arrazoiak emanaz zergatik, noiz eta nola egiten dituzten.
- Informazioa bidaltzeko balio duten gertakari-sekuentzia bat kontatu, gertakari baten denbora-sekuentzia adieraziz (atzo, orduan, lehen, gero, bihar...).
- Zerbait ulertu ez zaidalako noiz errepikatu behar dudanez antzeman eta hizketan jarraitu, etenak egin arren, edo beste pertsonak gehitzen dutena nire diskurtsora integratuz, hasieratik hasi behar izan gabe.



- Kontatu edo deskribatu aurrean ez daukadan bati zer ikusi dudanez edo zer den. Eta zenbait alditan proba-saiok egin behar izanda ere, hitzak erabil ditzaket nire bizitzako gustuak, aurkikuntzak eta gertakari garrantzitsuak adierazteko.
- Beste pertsona batek esan didana edo transmititzea nahi duena errepikatu memento batean geldiuneak edo zalantzak izan arren.
- Hitz bat ordezkatu bere tonu-inguruagatik edo soinu bereizgarriagatik, edo antzeko esanahia duen hitz bat bilatu ondo gogoratzen ez dudanez, eta horrela jarraitzen dut nire diskurtsua.




## Trebetasuna: Elkarrizketan aritu

Elkarrizketa bat izaten dudanean egoera ezagun eta lasai batean, nirekin ari den pertsona aurrez aurre badut, begiratzeko badit eta esandakoa errepikatzen prest badago, eta bere laguntzaz gain, testuinguruak eskaintzen didana badut.

### Gai naiz honako hauek egiteko:

- Elkarrizketa bat hasi edo moztu keinu eta begiraden bidez, badakit ere ikus harremanen bidez eusten, harridura, interesa edo asperraldia... adierazten nire begiratuarekin.
- Jateko zerbait eskatu, benetako edo itxurazko egoeran.
- Beste pertsonekin ados jarri erabakitzen jateko zer erosi behar dugun eta zer osagai erabili errezeta bat egitean.
- Eskaini norbaiti janaria edo gozokiak, eta norbait gonbidatu memento jakin bat partekatuz, eskaintza bati erantzutera - giza formula egoki bat erabiliz.
- Galdetu gustuei buruz eta ondorioak atera antzekotasun eta ezberdintasunei buruz, eta nire sentimenduak adierazi nire begirada eta keinuekin.
- Zalantza azaldu eta egiaztatu ulertu dudak bai keinuen eta soinuaren bidez, bai zalantzan dudak hitz bat edo hitz multzo bat errepikatuz, goranzko intonazioarekin.
- Ados jarri beste ikasleekin objektuen erabilpenean oinarritutako jardura bat egitean —eraikuntza-jolasak, espazio baten antolaketa, margolan edo sinbolo jolasak objektuekin— keinu eta gauzen laguntzaz.
- Ezagutu eta erabili hotsak eta onomatopeiak elkarreraginezko ariketa errazetan deskripzioak edo hitzak ordezkatzen.
- Keinuen, soinu eta giza formula egokien bidez adostasuna edo desadostasuna adierazi, barkamena eskatu edo onartu, nire laguntza eskaini, kexatu...
- Ahozko edo ez ahozko hizkuntza erabiliz, baita irudi eta objektuen laguntzarekin ere, ados jarri beste pertsonekin nora joan, nola zuzendu leku batera eta zer egin.
- Aurreikusitako beste pertsona batek zer esango duen eta behar duen hitza aurkitzen laguntzen diot.








# Trebetasuna: Irakurri

Irakurtzen dudanean, testutzat hartzen dut bai irudiek diotena bai idatziz dagoena, edo bi informazioak nahastuta agertzen diren dokumentuak.

## Gai naiz honako hauek egiteko:

- Ordenagailu-jolas bat hasteko beharrezko informazioa identifikatu, ezagutzen ditudan ikurren eta entzuten dudan informazioaren laguntzaz.
- Idatzita ematen zaizkidan agindu eta instrukzio errazak ulertu, giltzarri den irudi baten laguntza badut.
- Irakurri eta ulertu posta elektronikoa, ikurrak dauzkaten mugikorretako mezuak eta gertaera jakinak oinarri dituzten zorion-txarteletako mezuak, betiere bidaltzen duen pertsona ezagutzen badut eta zergatik bidaltzen duen argi badut, testuaren oinarrizko hitzak ezagutuz.
- Gustatzen zaizkidan orrietako web helbide bat, eta jolasteko edo zalantzak argitzeko behar dudan oinarrizko informazioa ezagutu.
- Irudiak, zenbakiak eta hitzak dituzten informazio testu errazetatik informazioa atera.
  
- Kontakizun bat ulertu, CD edo zinta bateko grabazioa lagun dudala. Zenbait ohituraren esanahia ulertzen dut: orrialdea noiz pasa behar dudan adierazten didaten soinuak eta pertsonaietatik narratzaile pasatzen direneko ahots-aldaketak, badakit zertarako diren orrialdeetako zenbakiak, zer den azala eta atzeko azala, tituluak eta azpitituluak, kapituluak eta aurkibidea, baita beren erabilera ere. Gainera antzematen dut eta badakit nola erabiltzen den liburuetako orriak markatzekoa beste memento batean jarraitu ahal izateko.
- Irudiak erabili esanahia ondorioztatzeko, eta irudizko sekuentzia begiratzen dut gero zer gertatuko den iragartzeko.
- Aurretik entzun dudan kontakizun edo ipuin bat modu isilean eta irudien laguntzarekin irakurri.
- Ezagutzen ditudan hitz eta esaera batzuk identifikatu ohiko testuetatik kanpo ikusitakoan.





- Antzezlan irakurrian edo albiste-programetan jolasten naizenean, testuak ahoz goza irakurri.
- Egitura nahiko korapilatsua duten narrazio-testuak irakurri eta ulertu: egitura irekiko istorioetan pertsonaiek egin beharko luketenari buruz erabakiak hartu.
- Informazio-testu erraz batzuen eskema ezagutu eta jakin informazioa non bilatu.
- Jakin nahi dudanari buruzko galderak egin eta deskripzio- edo informazio-testuan bilatu.
- Informazio baten bila jolastu lagunen laguntzarekin, eta lortutako informaziotik ondorioak atera.
- Liburutegiko liburu baten mailegu-prozesua jarraitu; laguntza txiki batekin ulertu mailegu-txartela eta betetzen dut.
- Halaber, pertsona heldu baten laguntzaz gai naiz irudien hiztegia egiteko eta hitzen esanahia egiaztatzeke erabiltzeko.






# Trebetasuna: Idatzi

Idaztean maiz akatsak egiten badituz ere eta marrazkien laguntza behar izaten baduz ere.

## Gai naiz honako hauek egiteko:



- Txango eta irteeretan jasotako informazio zehatzarekin album bat antolatu eta osatu, bertan gertaerak gogoratzeko balioko didaten izenburuak eta argazki-oinak idatziz.
- Idatzi gertaera garrantzitsuak nire biografian, edo informazioa nire txostenean.
- Gela antolatzeko horma-irudiak eta gelan landutako gaii buruzko argibide taulak eta posterrak egin: animalien bizitza, gure gogoak, lan baten plangintza, etab.
- Letra motak bereizi izenburuetan, testuetan edo sinaduran; laguntza txiki batekin gai naiz erabakitzekeo testuan sartzen dudana informazioak duen garrantzia.



- Bete gai ezagunei buruzko galdera-sortak edo formulazioak: liburutegiko liburu bat eskatzeko datuak, txartela, baita koloretan, zifretan, hitz edo esaldi motzetan oinarritutako informazio zehatza eskatzen duten testuak ere.
- Idatzi gogoratzeko balioko didaten ohar txikiak eta mezu motzak nire lagunentzat.
- Beste testu batzuetan informazioa bilatu eta oinarritzkoa iruditzen zaidana edo helduek gogoratzeko iradokitzen didatena kopiatu.
- Antolatu idatzizko informazio batzuk deskripzio batean edo informe txikian alde aurretik bilatutako datuetan oinarrituz, betiere pertsona nagusi baten laguntza baduz eta bere gainbegiratupean egiten baduz.
- Aztertzen ari naizen arloei buruzko proba idatzi errazak egin.



- Emandako ereduak erabiliz, idatzi posta elektronikoak, helbideak eta zorion-txartelak.
- Sortu irudietan oinarritutako narrazio-testu laburrak, egitura ezagun bat jarraituz; gehienetan lehen irakurritako narrazio baten bertsioa izan ohi dena.
- Jatorrizko egitura, errima eta erritmoa jarraituz, gozatu errima, aho-korapilo, asmakizun, kanta eta haur-olerki ezagunen aldaera kolektiboak eginez.
- Ezagutu eta urratsak jarraitu idatzizko testu bat egiteko: zirriborro bat egiten hasi, ondoren erabakiko dut behin betiko idazkera pasako dena, behin hitzak aukeratuz gero —hiztegiaren laguntzaz— eta behin zuzenduta nire ortografia-akatsak, alde formalak eta adierazpenekoak, geroago irudiak erantsiz.



Familia maitea:

Zuen umeak lehen aldiz du Hizkuntzen Portfolioa esku artean. Europa eta munduko aberastasun kulturala osatzen duten hizkuntzak ezagutzen lagunduko dion "dokumentua" da.

Bere aurrerabideak eta jakin-minak adierazi ahal izango dizkizue. Dokumentu honek umearen aurrerapenei, esfortzuari eta jakin-minari eusten laguntzea eta motibatzea du helburu.

Bere aurkikuntzen marrazkiak zein argazkiak, objektuak eta dokumentuak gordetzen hasiko dela eta, bere Dossierra zaintzen eta aberasten lagundu behar diozue.

Umeari ikaskuntza indartzen laguntzea ez ezik, ahaleginak eta jakin-mina balioestea ere garrantzitsua da.

Beste herrialde bateko hizkuntza batean mintzatzen den senitartekorik izanez gero, emaiozue aberastasun hori balioesteko adorea. Lagundu herrialdeen arteko kultura desberdinak konparatzen.

Nagusiagoa denean, bidaietan eta mundu osoan adiskideak egiteko beste Portfolio lagungarri batzuk erabiliko ditu, bere adinari moldatutakoak. Geroago, lana aurkitzen lagunduko dio, hizkuntzak ezagutzea garaipen pertsonal eta profesional handia baita.

Hasi dokumentu honekin batera bere bizitza osoa iraungo duen prozesua. Lagundu ikasketen aldeko ilusioari eusten umeak bere burua aintzat har dezan.

Nire Lehen Portfolioa

# Sarrera

Hizkuntzen Portfolio Europarra Europar Batasuna (EB) osatzen duten herrialdeetan erabiltzen den dokumentua da. Europako Kontseiluaren egitasmoa da eta gaur egungo hizkuntzen *ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako erreferentzia-marko europarra* ezartzea du helburu, hizkuntza-politika bera izan dezagun. Azken xedea EBko herrialdeetan lehen urteetatik hizkuntzen eta kulturen arteko esperientziaren ikaskuntza sustatu eta bermatzeko asmoz egiten diren proiektuak koordinatzea da.

Dokumentu honen asmo nagusia zuen umea munduan zenbat hizkuntza eta kultura eta zein era diferenteetakoak dauden konturaraztea da; eta aldi berean, zer, nola eta noiz ikasten duen ere ohartaraztea.

Joko itxuran, Europa osatzen duten kultura eta hizkuntzak ezagutzeko, lehen Portfolio honek mundua begirada zabalago baten bidez aurkeztuko die. Hala ere, garrantzitsuena da hemendik aurrera ikasten duenari zentzua ematen lagunduko dion jarduera hasiko duela eta bere bizipen guztiak lotuko dituela: ikastetxean egiten duena eta etxean, familiarekin, lagunekin, bidaietan eta esperientzia guztietan, birtualak barne, egiten dituen ekintzak. Modu horretan, autonomia bereganatuko du, bere burua hobeto ezagutuko du eta erabakiak hartzeko prestatuago egongo da.

Lehen Portfolio hau izango da kultura anitzeko ezaguera honen lehen pausoen lekukoa: hizkuntzak identifikatuz, familiak zein lagunak ematen duten adimena balioetsiz eta nagusiak direnean buruan izango dituzten dokumentuak bilduz (bideoak, billeteak eta zintak, besteak beste). Hori dela eta, umeak zuen laguntza eta kemena behar du, ikastetxetik kanpo egiten dituen jardueretan bereziki. Dokumentuari zentzua emateko familia eta lagunak premiazkoak zarete. Beraz, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeen helburua lor dezagun aktiboki parte hartzeko eskatzen dizuegu.

## Zer proposatzen dizuegu?

**Babestu** Dosierra egitean eragile izaten.

**Lagundu** bere Dosierraren parte izango diren materialak ugaltzen.

**Irakatsi** Portfolioa zaintzen.

**Erantzun** beste tradizio, hizkuntza edo kultura batzuen ezaguera zabaltzeko asmoz egindako galderei.

**Erakutsi** ikasleak ikastaldian Portfolioaren bidez egiten dituen aurrerapenen aldeko jarrera. Ikasteko bide berriak.

# Proposatutako Jarduerak

## Bermatu

Dossier bat egiteko proposatzen diren jarduerak egiteko zuek parte-hartzea behar dute.

- Zuen seme-alabei beren argazki bat ekartzeko eskatuko diegu. beren dokumentuak personalizatzeko balio du argazkiak.
- Aldi berean, hurbileko pertsonen argazkiak edo marrazkiak eskatuko dizkiegu: beste kultura batekoak, beste hizkuntza batzuekin harremanak dutenak edo haientzat garrantzitsuak diren pertsonenak.
- Errezeta bat egiteko hainbat senideren laguntza beharko dugu.
- Etxean errezeta sinpleak presta ditzazuela iradokitzen dizuegu, eman beharreko pausoak azalduz, gero haien lagunei azal diezazkieten.

## Lagundu

Ikasgelatik kanpoko esperientzietan jatorria duten Dossierren parte izango diren materialak ugaltzen.

- Ikasle bakoitzak gelara objektuak, bideoak, ipuinak, apaindurak eta bilgarriak eramango ditu lagunek asma dezaten berarentzat zer esangura duten.
- Bakoitzak objektuekiko daukan lotura azaldu ondoren tarte batean Hizkuntzen eta Kulturen Txokoan utziko ditu.
- Aldi berean, kasu batzuetan familien laguntza premiazkoa izango du ikasgelara eramango duen objektuaz oroitzeko.

## Irakatsi

Materiala zaintzeko ohiturak:

- Erabili leku garbietan eta esku garbiekin; batez ere, kontuz zabaldu eta itxi.
- Arduratsuak izan, jakin une guztietan non dagoen eta ez galdu.

Ezin dugu ahaztu dokumentua haien aurrerapenen lekukoa eta haien historiaren parte izango dela. Lagun iezaiozu duin edukitzen.

## Erantzun

Zuen seme-alabei interesatzen zaizkien eskaerak eta galderak. Kultura eta hizkuntza desberdinen edo antzekoen ezaguera hedatu eta indartuko dute:

- Egiten dituzten galderei erantzungo zaie beste tradizio, hizkuntza eta kultura batzuen ezaguera hedatzeko asmoz.
- Esperientziak, oroimenak, irudiak edo ikusitako lekuak gogora ekartzeko asmoz.
- Beste kultura edo hizkuntza bateko lekuetan egondako senideez eta lagunez mintzatzeko eskatzen dizuegu.

## Erakutsi

Zuen seme-alabak Portfolioan sartu nahi dituen ikaskuntza-aurrerapenekiko jarrera positiboa. Ikaskuntzan jarraitzeko adorea ematea proposatzen dizuegu: ikertzen jarraitu, bere aurrerapenez pentsatzeko ahalmena indartu, hainbat kulturatako jokaerari buruz gogoeta egin, Dossierra dela medio egindako jarrerak aintzat hartu eta gogoratu. Dossierrean era askotako dokumentuak zein objektuak sar ditzakete, pixkanaka-pixkanaka auto-ebaluaketaren kulturen sartzen hasiko dira eta beren buruari helburu berriak ezarriko dizkiote.





HIZKUNTZEN PORTOFOLIO EUROPARRA

# Nire lehen portfolioa

Mi Primer Portfolio

My First Portfolio

3-7 urte

## Gida didaktikoa

